

TOKIKOM

2010eko maiatza | 93. zenbakia

aike!



txorierriko aldiz

Ortzi Garitano, bertsolaria

“Helduago,
trankilago
nago”

BARDINEAN EUSKERAZ

Magisteriaren erantzukizuna
Gaitortzearen eta prebentzioaren inguruan

Alde bakoitzaren laguntza
Hortaz, gaitortzearen eta prebentzioaren inguruan

Klasen partekatutako erantzukizuna
Profesionalen eta klase partekatuen inguruan

Erakundearen erantzukizuna
Hortaz, gaitortzearen eta prebentzioaren inguruan

Erantzukizuna
Hortaz, gaitortzearen eta prebentzioaren inguruan

Erantzukizuna
Hortaz, gaitortzearen eta prebentzioaren inguruan

Erantzukizuna
Hortaz, gaitortzearen eta prebentzioaren inguruan


Erantzukizuna
Hortaz, gaitortzearen eta prebentzioaren inguruan

Buskaldunak
behar ditugu

Buscamos
euskaldunes



*Informazioa, Murrizketa-erantzukizunaren Zuzendaritza
*Información, en el Servicio de Gestión de la Comunidad



Informazioa
Murrizketa-erantzukizunaren Zuzendaritza





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jose Antonio Lekue, Asier Oruetxebarria, Maripi Agirre, Xabier Diaz, Urko Lasarte, Loiuko Udala, Txinpasmendi GE, Begoña Laita, Juanjo Ortiz, Ines Serrano, Oihana Astobietta, IZAE Zamudioko argazki taldea, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: AIKOR!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO LAURAKURTERA
GOBIERNO VASCO

KULTURAREN
DIREKZIOA



ELKARTEEN FEDERAZIOA



diruz lagundutako aldizkaria



12 Gontzal Mendibil

30 Literaturia

34 Mikel Artetxe taldea

-  4 Eritxia
-  5 Laburrak eta albisteak
-  11 Iruditan... San Tomas baseliza
-  12 Gurean izan da... Gontzal Mendibil
-  14 Gaztea eta... Aide Muruaga
-  16 Loiuko jaiak
-  20 Ortzi Garitano
-  24 Sondikako jaiak
-  28 Dantzarien Eguna, Sondikan
-  30 Literaturia
-  32 Antzerkia, Lezaman
-  34 Elkarreak/Taldeak... M. Artetxe Txirrindulari Zaleak
-  36 Baserri munduan... Victor Ugalde artzaina
-  38 Teknologia... GPS
-  39 Aikorritzetan... Adarra jotzeko makina
-  40 Sukaldaritza
-  41 Denborapasa
-  42 Agenda





JOSE ANTONIO LEKUE
(Baserritarra)

Azken krisi honek nekazaritzan duen eraginaz galdetzen didatenean zalantza izaten dut beti, eta ez dut jakiten justu zein den lehenago, krisi ekonomikoa ala nekazaritzaren krisia. Krisi honek eragina duela lehenengo sektore osoan ez dago zalantzarik. Beste sektore guztietan legez, gutxiago saltzen baduzu eta merkeago egin behar baduzu, eragina argia da. Baina nekazaritzako krisia ez da duela bi urtetik honakoa, datuak argigarriak dira: Euskal Erkidego Autonomoan 1999an 39.956 baserri bazeu-

den, gaur egun 25.000 (1) baino ez dira gelditzen. Baserriko lanpostuen %43 inguru galdu dira. Gehiago oraindik, gure baserrietan produzitzen dena barne kontsumoaren %20ra ez da heltzen (2).

Hori guztia ikusita, nik esango nuke gure lehen sektorea krisi sakon batean sartuta dagoela, baina aspalditik. Horri krisi ekonomiko, energetikoa, ekologikoa... gehitzen badiogu, gauzak beste era batera egin behar ditugula uste dut. Nekazaritzatik begiratuta, azken urteotako ekoizpen eredia krisi ekonomikoko honen bultzatzaileetarikoa bat izan dela esango nuke, hau da, agro-industriak, era guztietako kontzentrazioak (Beyena kasurako), enpresa gutxi eta jakin batzuen munduko elikagaien kontrola, elikagaiak produzitzen diren tokitik kontsumitzen direnera 2.000-4.000 km egitea, eta abar luze bat.

Beraz, lurra eta pertsonak errespetatuko dituen baserri-eredura jo behar dugu berriro. Herrialde bakoitzak berak kontsumituko

dituen produktuak ekoizteko ahalmena izan behar du, horretarako produkzio eta kontsumorako zirkuitu laburrak antolatuz, energia, ura eta beste lehengai gutxiago gastatuko dutenak.

Horrek guztiak beste era bateko neurriak ere eskatzen ditu, adibidez, herri edo eskualdeka antolatu beharreko azpiegiturak (produktua eraldatzeko, gordetzeko, banatzeko...), baserrira dedikatzen gazteei erraztasunak ematea, luraren antolaketa, nekazaritzarako lur onenak direnak ez urbanizatzea... Komertzio berri eta justuago bat sortu beharra dago, baina ez hango urruneko produktuekin bakarrik. Bertoko produktuak kontsumituz, kalitatezkoak eta sasoian sasoikoak; baserritar eta kontsumitzaileen artean merkatu berri bat sor daiteke. Espezentzia batzuk abian dira bide horretatik...

(1) Eusko Jaurlaritzako Landa-garapenerako Programa 2007-2013: Eusko Jaurlaritza.

(2) www.ehne.org

Zatiketa kontua


Jakin badakit krisiaren gainean hainbat idatzi dana, baina akabuko astantan gertatutakoa gertatuta ezin izan dot pentsaten dodana barruan euki. Ganera, ziur nago askok bardin pentsatzen dabena.

Zapatero eta Idoia Mendiari esaldi zelebrea entzun neutsen: "krisi hau nahiz eta langileek ez dabean sortu, orain guztion artean lan egiteko ordua da eta esfortzu bat eskatu behar jake hiritarrei". Orain arte gauzak ondo joan ei diran bitartean, edo ekonomia, batzuen batez ere, ondo joan dan bitartean aberastasu-




ASIER ORUETXEBARRIA
(Irakaslea)

na guztion artean banatu da: batzuen kasuan langileen soldatak ez dira jaitsi, gasolinaren prezioa ez da euro t'erdia heldu, pisuak erosteko maileguak barra-barra emon dira... eta besteen kasuan enpresen etekinak banatu dira. Arazoa hau da: azkenengo diru honen banaketa-zatiketa egiteko zatitzailea oso zenbaki txikia izan da. Umeek zatitzen ikasten dabenean egiten dabean hasierako zatiketen antzekoa zati 2, zati 3 edo zati 4 egin dute. Milakoez edo hamar milakoez zatitzen ez dabe ikasi; agian datorren urtean ikasiko dabe. Baina ez dot uste ikasiko dabenean hurrengo urteetan. Gauzak hobeto doazenean, barrero ere zatiketa berberak errepikatuko dabez, ezer ez aurreratu barik.



Gidabaimena euskaraz atera daiteke Txorierriko autoeskoletan



Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak hitzarmen bat sinatu du Txorierrin dauden hiru autoeskolekin, hemendik aurrera gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera ere eskain dezaten. Autoeskolak hauek dira: Sondika, Mikel (Derio) eta Basurto (Zamudio). Azaldu duten bezala, bertoko gazteen gehiengoak D ereduan ikasten du eta hortik, edozein gauza egiteko orduan, euskaraz erdaraz baino

erraztasun handiagoa dutela atera daiteke ondorio. Gainera, orain dela gutxi argitaratu eman da euskarazko lehenengo materiala eta jadanik ez dago trabarik, klaseak hizkuntza honetan emateko. Klase praktikoak euskaraz hartzeko aukera ere badago Sondika eta Derioko autoeskoletan.

Mankomunitateak gutun bana agintuko die 17 urtetik 23 urtera bitarteko

gazteei; 1.167 gutun, orotara. Bertan, gidabaimena euskaraz Txorierriko edozein autoeskoletan ateratzeko aukera dagoela jakinaraziko zaie. Mankomunitateak gainera sari bereziak eskainiko dizkie adin honetako Txorierriko gazteei gidabaimena euskaraz ateratzera anima daitezten. Horrela, azterketa teorikoa euskaraz egiten dutenek doan izango dute lehenengo klase praktikoa. Horrez gainera, lau laguntzako European zehar ibiltzeko 22 eguneko bidaia zozketatuko da ikaslearen artean. Beste alde batetik, Mankomunitateak 10 teoria-liburu emango dizkio autoeskola bakoitzari.

Hitzarmenaren haritik, autoeskoletan konpromiso hauek hartu dituzte: klaseak euskaraz eskaintzeko beharrezkoak diren euskarriak eskuratu eta eskainiko dituzte; zentroaren hizkuntza paisaia euskaratuko dute; eta klaseak euskaraz jasotzeko aukeraren berri emango diete bezero guztiei. Mankomunitateak, bere aldetik, herritarren artean zabalduko du kanpaina eta euskarazko materiala eskainiko die autoeskoletari. Horrez gainera, hizkuntza aholkularitza eta itzulpen zerbitzua ere eskainiko die.

Gidabaimena euskaraz ateratzeko inizatiba hau Txorierrin ez ezik Bizkaiko beste herri batzuetan ere jarriko da martxan.

GAMINIZ
JATETXEA

Telefono: 944 26.1122
email: gaminiz@gaminiz.com

Enkargatutako: 2010. urteko ikasleentzako
2010. urteko ikasleentzako
2010. urteko ikasleentzako

www.gaminiz.com

Magalarte
txakolina

2010. urteko ikasleentzako
2010. urteko ikasleentzako
2010. urteko ikasleentzako

SANTI MAMI

2010. urteko ikasleentzako
2010. urteko ikasleentzako
2010. urteko ikasleentzako

Liburutegia, klik bakar batera

Lezamako liburutegiak blog berri bat du. Blog hori www.lezama-koliburutegia.blogspot.com helbidean dago. Proiektuaren ardura-dunen arabera, liburutegiaren modernizazioak hobetuko ditu, alde batetik, azpiegituraren baliabideen kudeaketa eta, bestetik, erabiltzaileei ematen zaien zerbitzua. Horretarako, hainbat eduki jarri dituzte herritarren eskura, hala nola lan berriak, iradokizunak, udal ikastaroei buruzko zehaztasunak edo irakurzaletasuna sustatzeko programari buruzko argibideak. Beste alde batetik, erabiltzaileek aukera izango dute blogean bertan, zerbitzua hobetzeko iradokizunak egiteko, liburuak eskatzeko edo liburutegiaren jarduerari lotutako beste edozein alderdi lantzeko. Azkenik, liburutegiak helbide elektronikoa berria ere jarri da abian: lezamakoliburutegia@gmail.com. Helbide horretan liburutegiarekin zerikusia duten gaiak landuko dira.

Txorierrik indartsu hasi du denboraldia

Hasiera eman zaio Harri-zulataleen Euskal Herriko XII. Ligari. Bertan Txorierrri taldea dabil parte hartzen. Dagoeneko Ligaren saio bi egin dira: bata, Zierbenan; eta bestea, Urtuellan. Txorierrri taldeak saio biak irabazi ditu.

Krisiak eragin txikiagoa du Txorierrin Euskal Herrian baino



Behargintza Txorierrik 2009. urteko balantzea eman du ezagutzera. Iazko oso urte gogorra izan zen krisiaren ondorioz. Hala ere, gure eskualdean jasotako datuak ez dira hain txarrak izan, Bizkaikoekin eta Euskal Herrikoekin alderaturik.

Behargintzatik jakinarazitako informazioaren arabera, Txorierriko langabezia tasa %6,35ekoa izan zen 2009an, eta 1,46 puntuko igoera izan zuen aurreko ekitalditik. Igoera izanda ere, Bizkaiko eta Euskal Herriko langabezia tasatik urrun geratzea lortu dugu: %10,85 eta %10,2, hurrenez hurren. Iaz, 1.603 lan kontratu sinatu ziren gurean; 2008. urtean, berriz, 2.366.

Beste alde batetik, 265 enpresak 816

lan eskaintza bideratu zituzten Behargintzaren bidez. Guztira, 355 langile hartu zituzten.

Behargintza Txorierrik 2.695 laguni eman zien zerbitzua lau esparrutan: enpleguan, autoenpleguan, heziketan eta orientabideetan. Lagun horietatik 755ek lehen aldiz jo zuten erakundera. Gainera, 388 ikaslek hartu zuten parte ikastaroren batean.

2009ko urte osoan, Behargintzak 40 proiektu ekintzaile berriri eman die laguntza. Proiektuen %32,5 iaz bertan eratu ziren, eta %17,5ek tutoratze prozesuan jarraitzen dute. Proiektuen %50 bertan behera gelditu dira. Txorierrin 18 negozio berri jarri ziren abian iaz.

HOGALAXA
Herritarren Arretarako

Informazio Pertsona - Arretarako ZIBU
HEZKUNTZA (HOGALAXA)
Telefonoa: 91 503 88 02
Faxa: 91 503 88 01
E-mail: hogalaxa@arretarako.com
E-mail: arretarako@arretarako.com
www.arretarako.com

OSKARBI
fotografoak

PROFESIONALAK
LANTZEA, BILKETA, BERRIKAZA,
MONTAJE, ENKADRE, BORDAKO ENKADRE,
KOPIAK, ARGAZKIAK, BORDAKO ENKADRE

TXIKI
BERRIKAZA
BERRIKAZA
BERRIKAZA

1. BERRIKAZA
2. BERRIKAZA
3. BERRIKAZA

Vértigo
LABORU PUBLICOAK
Zuzendua Iratxe Lekuonairek

MANEJO DE PROYECTOS DE OBRAS PÚBLICAS

Industria 100
48100 Leizor (Bizkaia)
Tel: 945 22 22 22

BARRIO
BARRIO
BARRIO

1. BARRIO
2. BARRIO
3. BARRIO

Aspanovas elkartearen aldeko Futbol 7 jaialdia, Larrabetzun

t: Maripi Agirre / a: Urko Lasarte

Uritarra Larrabetzuko futbol eskolako Futbol 7 jaialdia antolatu du ekainaren 11, 12 eta 13rako. Ekimenak eskola bera eza-gutzera eman eta ikasturte honetan bertan aritu diren gazteei agurra egitea zuen hasierako helburu. Hala ere, helburu hori haratago joan da eta jaialdian minbizia duten umeen errealitatea ere hurbilduko zaie herritarrei. Horrela, bada, ekitaldian batzen den dirua Aspanovas minbizia duten umeen elkarteari laguntzeko erabiliko da alde batetik, eta bestetik, txapelketaren antolaketarako.

Txapelketan parte hartuko duten talde gehienak Euskal Herritik etorriko dira:

Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroatik, hain zuzen ere. Era berean, Santander, Zaragoza, Xixon eta Madrilgo taldeak ere hurbilduko dira Larrabetzuraino.

Lagun asko dira, txapelketa aurrera eramateko, gogoz lan egiten dabiltzanak. Gainera, aipatu beharra dago Txorierriko eta inguruko herrietako enpresa asko ere prest azaldu direla diru-laguntzak emateko. Antolatzaileen esanetan, "euren jarra eskertzekoa da, bizi dugun krisialdia kontuan hartuta". Asteburu osoan zehar futbola eta solidaritatea protagonistak izango dira Larrabetzun. Beste alde batetik, txosna bat ere egongo da eta han taloak eta oilasko pintxoak jarriko dira salgai.



San Tomas jaiak, Zamudion

Zamudioztarrek San Tomas jaiak ospatuko dituzte ekainean. Hilaren 18tik 21era bitartean ekitaldi hauek izango dituzte ermita inguruan:

Ekainaren 18an, barikuan

18:00: Bolanderak.
20:00: Idi probak.
22:00: Saiheski jana, urdai tripapekoa eta sardinak.
22:30: Erromeria, Nakar taldearen eskutik.

Ekainaren 19an, zapatuan

16:00: XXI. Mus Txapelketa.
17:00: Umeentzako jolasak.
18:00: Tortilla Txapelketa.
21:00: Tortillak aurkeztea.
21:30: Sariak banatzea.
22:00: Erromeria, Nakar taldearen eskutik.
22:30: Antzinako eta betiko jokoak.

Ekainaren 20an, domekan

09:00: Zamudioko bost ermitetatik XIV. ibilaldia. Iñaki Peral V. Memoria-
la.
09:00: Argazki-Rallya, ermitetatik, IZAE elkarteak antolatua.
Bertoko taldeak goiza girotuko du.
09:00: Paella eta Sukalki Txapelketak.
13:00: Meza, San Tomas ermitan.
13:30: Paellak eta sukalkiak aurkeztea.
18:00: Euskal dantzen agerraldia, Iru-
bat taldearekin.
18:00: Ostean, lehiaketen sariak banatzea.
19:00: Erromeria, trikitilariekin.

Ekainaren 21ean, astelehenean

12:00: Meza, hildakoen oroimenez.

ZAMUDIOZTARREN

94.602 1006
94.602 1004

Mt. Tardaguila
Pta. I. Etxeak 1
48930 ZAMUDIO
Bizkaia

LARRA BILU TXORIERRI

LARRA BILU TXORIERRI

ARRAUNEN B. GARCIA, 10. ANIZALDEA, 17000 ZAMUDIO, BIZKAIA

EL ERMITA DE SAN TOMAS

Reunión de vecinos de San Tomas para la realización de las fiestas patronales de San Tomas.

Primeros 100
Reservas gratuitas (previa reserva)

TEL: 946 001 74 70
TEL: 946 001 74 70

CAJAS BIDE-GORRI

Reunión de vecinos de San Tomas para la realización de las fiestas patronales de San Tomas.

TEL: 946 001 74 70

ZAMUDIOZTARREN ESTANKOA

Taldeok elkarrekin elkarrekin

TEL: 946 001 74 70

OBRAS Y REFORMAS

Comedia

Reunión de vecinos de San Tomas para la realización de las fiestas patronales de San Tomas.

TEL: 946 001 74 70

Berreagako herrixka, kultura-ondasuna izatetik gertu

Bizkaiko Foru Aldundiak hasiera eman dio Berreagako Herrixka Gotortuaren eta Nekropoliaren Gune Arkeologikoa, monumentu-multzo izendapenez, sailkatutako kultura-ondasuntzat jotzeko espedienteari. Herrixka Zamudio, Mungia eta Gamiz-Fika udalerrietako lurretan dago.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean jakinarazi den bezala, herrixkari eman zaion babes-maila kontserbaziokoa da. Horrela, bermatu egingo da "kontserbatu beharreko ondasunak kalterik ez jasotzea".

Gune arkeologikoa dagoen inguruan integratuko da, eta bertan aztarnategiari lotutako kultura-jarduerak egiteko aukera egongo da.

Orain dela urteak, Aldundiko arkeologoen inportantzia handiko gune gotortua aurkitu zuten Berreagako herrixkan. Herrixka hesi batek babesten zuen. Han topatu zituzten aztarnen artean hauek zeuden: erdilabar-etxebizitzak, kultura zeltiberiarren zeramikalanak, IV. mendeko txanpon erro-matarra eta zalditxo-itxurako gerrikoaren belarria, zeina soldadu zeltiberiarrek jantzi ohi baitzuten. Hala ere, Berreagako aurkikuntzarik inportanteena hareharritzko hilarri-alea izan zen. Hilarrietan motibo horzduinak eta figura zeltikoak zeuden marraztuta.




Repsol spot bat grabatu du SAT LEGU

a: Begoña Laita

Telebistan ikusi dugunean, ez gara konturatu, beharbada. Baina herrian zabaldu den zurrumurrua egia da: apirilean, enpresa bat SAT LEGU Lezamako mintegian ibili da telebistarako iragarki bat grabatzen. Enpresa hori Repsol izan da eta iragarkiak *Mikroalgak* du izena. Konpainia algak erabilia dabil energia garatzen, eta iragarkiak lan hori ezagutzera ematea du helburu.

Spota apirilaren 16an grabatu zuten, baina aurreko astetik ere bazegoen mugimendu handia mintegian, bertan laborategi bat atondu behar izan zuten-eta. Fil-

mazioan 60 lagunek hartu zuten parte, eta, orotara, 12 ordu eman zituzten iragarkia grabatzeko. Spotak 20 segundo irauten du. "Gure mintegia aukeratu dute duen argitasunagatik", azaldu digute SAT LEGUtik. "Mugimendu handia egon zen gurean aste osoan zehar, eta oso esperimentzia polita izan da. Eurak beharrez biltzanean gu ere bagenbiltzan beharrez, jakina, "guztiok geldi, grabatuko dugu-eta" esaten zutenean, guztiok geldigeldi egon behar genuen: gu, bezeroak... Alde horretatik apur bat barregarria ere izan da". Iragarkia telebistan ikusten dugun hurrengo aldiaren arreta gehiago jarriko dugu, ziur asko.



Agur ikasturteari

a: Txinpasmendi GE

Ekainaren 18tik 20ra bitartean, ekitaldi sorta zabala egongo da Larrabetzun, Txinpasmendi gurasoen elkarteak antolatua. Ikasturteari agur esateko, besteak beste, antzezlanak, txapelketak, erakustaldiak, kantaldiak eta tailerrak antolatatu dituzte. Ekitaldietan eskolako umeak ez ezik horien gurasoak eta herritarrak ere izango dira protagonistak.

Ekainaren 18an, barikuan

17:00: Antzezlanak, ikasleen eskutik. Eskolako gimnasioan.

18:00: Txapa gaineko Primi Txapelketa. Eskupilota eta Pala. Neska zein mutilentzat. Frontoian. Izena ematea, 30 minutu lehenago.

Ekainaren 19an, zapatuan

11:00: Buruhandiak eta txistulariak.

11:30: Gimnasia erritmikoaren erakustaldia, ikasleen eskutik. Frontoian.

12:00: Taekwondoren erakustaldia, ikasleen eskutik. Frontoian.

12:30: Euskal dantzen agerraldia, ikasleen eskutik. Herriko plazan.

13:00: Eskolako Jaiaren abestiak, herriko plazan.

13:30: Sokatira Lehiaketa, gurasoen artean. Herriko plazan.

14:00: Txikientzako bazkaria, eskolako jantokian.

14:45: Nagusientzako bazkaria, eskolako jantokian.



15:00: Aurpegia margotu eta bestelako tailerrak, eskolako patioan.

15:30: Karaokea, eskolako patioan.

16:30: Tor magoaren emanaldia, eskolako patioan.

17:30: Merienda, eskolako patioan.

17:45: Arku-tiroa, eskolako patioan.

18:15: Jolasak, eskolako patioan.

Ekainaren 20an, domekan

10:00: "Eskolatik Larrabetzura" oinezko azken irteera: Eleizalde-Gaztelumendi-Eleizalde GR-280tik.

Antolamendu-Plana Gangurenerako

Bizkaiko Batzar Nagusiek Lezamako tiro-zelaiari buruzko Arauz Besteko Saloa onartu dute. Horrela, azterketa bat egiteko eskatu diote Bizkaiko Foru Aldundiari, tiro-zelaia- inguruko lurra kutsatuta dauden jakiteko. Era berean, tiro-zelaia- ren jardunaren eraginez, kutsatuta egon litezkeen lurra eta iturburuak garbitzeko plan bat aurkeztu dezala eskatu diote.

Ganguren mendilerroan dauden Herri Erabilerako Basoak Antolatzeko Plana egiteko eskaera ere egin diote, gaur egungo egoera aztertu eta antolamendu helburu egokiak definitzeko: erabilerak, espezieak, berro- neratzeko eremuak eta errepide sareak, besteak beste. Erabakiak erantzuna eman dio Lezama Bizirik elkarteak Batzar Nagusietan aurkeztu- tutako proposamen bati.

Hitzarmena, golfa herritarrei hurbiltzeko

Derioko Udalak eta Pitch & Put Deriok hitzarmen bat sinatu dute. Hitzarmenari esker, udal kiroldegia- ren bazkideak diren derioztarren lehen- tana izango dute golf-azpiegiturak erabiltzeko orduan. Horrezaz gainera, hainbat abantaila ere edukiko dute. Besteak beste, eskaintza bereziak egingo zaizkie prestakuntza-ikastaro- en haritik. Pitch & Put golfaren moda- litatea da eta hitzarmenak hura herri- tarrei hurbiltzea du helburu.

Madariak
www.madariak.com

0945 55 11 11
0945 55 11 11
0945 55 11 11
0945 55 11 11
www.madariak.com

EXCAVACIONES
AZURMENDI

94 455 63 94
94 455 63 94

GOXO-GOXO LOJISTIKOA

0945 55 11 11
0945 55 11 11
0945 55 11 11

On egin

94 455 63 94

J. KUMBISSLAGIA

94 455 63 94

Joko anitzeko kirol-gunea, Loiun



a: Loiu Udal

Loiuo gazteek eta nagusiek badute jolaserako eta kirola egiteko gune berria. Izan ere, joan den barikuan joko anitzeko kirol-gunea inauguratu zuten herrian.

Azpiegitura hiru eremuek osatzen dute. Lehenengoa gazteei zuzenduta dago, eta bertan areto-futbol, saskibalo eta volleyball kiroletan aritzeko zelaia atondu da. Bigarrenean, aterpe bat eraiki da eta han nagusiek gorputz-ariketa egiteko hainbat joko jarri dira: pedalak dituen bankua, aldapa bat eta eskailerak dituen

pasabide bat, edo besoak lantzeko aparatua, banaka batzuk aipatzearen. Era berean, oinezkoentzako bide bat egin da, bertan footing ahal izateko. Besteak beste, aparatu hauek jarri dira ibilbidearen zehar: horma-barrak, abdominalak indartzeko aparatu bat, eta hantetan eta sorbaldan masajea hartzeko aparatu bat. Proiektuaren barruan, herriko argien sarearen zabalkuntza ere sartu da.

Kirol-gunea Santa Luzia auzoan eraiki da eta lanetan 413.928 euro inguru erabili ditu Udalak.

Zamudiok nota onarekin gainditu du herritarren azterketa

Herritarrek Zamudiori buruz duten iritzia ezagutzeko asmoz, Udalak inkesta bat egitea agindu dio enpresa bati. Inkesta telefonoz egin da, eta 18 urtetik gorako 378 zamudioztarrek hartu dute parte bertan. Udaletik jakinarazitako datuen arabera, herritarrek uste dute Zamudio oso leku egokia dela bizitzeko, eta 7,98 puntu eman diote. Era berean, ondoen baloratzen dituzten udal zerbitzuen artean hauek daude: UDA programa (8,15), ludoteka (7,88) eta liburategia (7,82). Gutxi baloratutako zerbitzuetariko bat Hirigintza eta Ingurumen Saila (6) da. Beste alde batetik, aparkalekua (4,76) hobetu beharreko zerbitzu bat dela uste dute.

Udalak Artega auzoan babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza tasatuak eraikitzeko asmoa du, eta proiektu horrek (7,56) interes handia sortu du zamudioztarren artean. Izan ere, herritarren iritziz, Zamudioaren arazorik handienetako bat etxebizitza da. Horrela, %21,9k beharrezkotzat jotzen dute herrian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea. Honako hauek dira inkestatuek aipatutako beste kezka batzuk: trenbidea lurperatzea, eskola berria eta gaur egungo egoera ekonomikoa. Zamudioztarrek 6,7 puntu eman diote Udalaren lanari.





Hain ondo pasatzen dudan lekuaren oroigarria

Zazpi urte daramatzat Zamudion bizi izaten eta behin, kasualitatez, San Tomas basilizarekin egin nuen topo. Jaietan zeuden bertan. Hain giro atsegina zegoenez, harrezkero beti joan izan naiz jai horietara. Azken elurtea aprobetxatu dut, hain ondo pasatzen dudan lekuaren oroigarri bat izateko.

Argazkia: Bienvenido Ferreiro, (IZAE, Zamudioko Argazki Taldea)



DERIO FISIOTERAPIA-ZENTROA

- Tratamendu partikulak:
 - Erlikia moten aparatua
 - Laser neurologikoak
 - Kirokineologik
 - Gimnasia egokirikoa (pre eta post-lesioak)
- 40 urteko esperientzia
- Tratamenduak

1000000
0900-11 80

Abuztuaren 2-6 | Iñaki Indaategiarena | 40160 Derio | T. 919 44 20 41

t/a: Gaizka Eguskiza

Zer da "Kanta herriari" ekimena?

Aspaldiko kantariok batu gara eta, horren bidez, aspaldiko kontzertuak berbiztu gura izan doguz. Eskaintzen doguzan kantak be aspaldikoak dira, baita ezagunak be. Horregaitik, parte hartzeko gonbidapena luzatzen deusagu jenteari. Eta holan egin dogu Zamudion. Txomin hasieran aritu zan, gero Niko eta gero ni neu; eta azkenean danok batera. Kontzertu honetan beste gauza berezi bat dago, arrastiko 7etan izan dala. Ni kantetan hasi nintzanean arrastiz egiten ziran kontzertuak; gaur egun, ostera, gauetz egiten dira. Nire ustez, giro politagoa eta familia-rragoa sortzen da arrastian.

Zelan sortu zan proiektua?

Orain dala urte eta erdi hainbat kantari bildu ginan Gu gira diskoa argitaratzeko. Eta batzuk birea be egin genduan: besteak beste, Donostia, Iruña, Gasteiz, Bilbo, Arrigorriaga edo Hondarribitik ibili ginan. Arrakastatsua izan zan eta, horren haritik, Zamudion be egin dogu kontzertua.

Hamahiru disko eta 35 urte musikagintzan. Zer daukazu oraindino egiteko?

Banago bizirik, eta bizi nazen bitartean, gauzak egin gura dodaz, gauza hobekak, posiblea bada. Nik sormen-arazorik ez daukat. Halanda be, musikearen egoera ez da bape ona gaur egun: aurrekontu publikoek nabarmen egin dabe behera, industria musikala pikutara joan da, oso gatxa da diskoak saltzea zein kontzertuak eskaintzea....

Ildo horrerri jarraituz, euskal musikearen industria batu egin da eta alkarte sortu dabe...

Bai, askotan nire kabuz ibili arren, ni be banaz horren kidea. Musika arloan, gorabehera guztiak ezagutu eta bizi izan dodaz: 1970. hamarkadan 2.000 lagun etorten ziran gure kontzertuetara, eta ho-



"Sormen-arazorik ez daukat"

GONTZAL MENDIBIL | musikaria

Herriko jaiak aukera parebakoa dira betiko euskal kantariak zuzenean ikusteko. Gontzal Mendibil (Zeanuri, 1956) horreetako bat da, eta "Kanta herriari" ekimena eskini eutsien Zamudioko herritarrei Niko Etxart eta Txomin Artolagaz batera.





Batez be, sortzailea

Bere burua "sortzaileztat" hartzen dau, eta jenteak kantaria izateagaitik ezagutzen dau Gontzal Mendibil, baina zeanurikoak gauza asko egin dauz: produktore, idazle, enpresari... "Euskal Herria txikia da eta ni ez naz ez Bruce Springsteen, ez Julio Iglesias. Berton musikatik bizitzea gatxa da". Horregaitik, 1992an Keinu silua eratu eban eta bertan bere lanak produziduteko aukera euki dau, batez be.

Geroago, konturatu zan industria musikala pikutara joango zala, eta telebista-saioak ekoitzen hasi zan. Famaduen "La botica de la abuela" izan zan. Saioa orain dala 12 urte jarri zan martxan TVEn, eta saio pilotuak Larrabetzuko andra batek, Josefinak, aurkeztu ebazan. Geroago, Txumari Alfaro eta arrakastea etorri ziran. Ameriketan be ikusi dabe programea. "Gaur egun, "La botica" saio txikia igorten dau Cuatro kateak, eta etorkizunari begira, barriro egiteko asmoa dogu, baina itxuraz erabat aldatuta".

rreek oso gitxi zirala esaten genduan. Begiratu zer dan hori gaur egun! Geroago, behera egin eban, eta gero barriro be gora. Gaur egun musikaren industria aldatu egin da, eta guk imajinazioa landu behar dogu jentea erakarteko. Diru-laguntzak ondo dagoz, baina ez dabe ezer konpontzen musikariok produktu erakarriak egiteko gauza ez bagara. Eta egia da hedabideek ez dabela gehiegi laguntzen. Gure herrian, kultura apur bat baztertuta dago. Campos Bilboko antzokiaren zuzendariak esan eustan euskeraz egiten diran ikuskizunetara askoz jente gitxiago joaten dala. Oso triste da, baina gure kultura salbau egin behar dogu,

"Musika mundua txarto dabil; horregaitik, imajinazioa erabili behar dogu gauza barriak eskintzeko"

eta hori eskatu behar deutsegu agintariari. Lehen, herrietako jaietara ez ziran kanpoko abeslariak ekarten, eta orain normaltzat hartzen dogu, esaterako, Raimundo Amadorrek Areatzan kontzertua emotea. Andaluzian bertako musika eta kultura guk geurea baino askoz gehiago bultzatzen dabe. Hemen kultura eta kultur mobimentua dagoz arriskuan. Eta ez beteranoen lana, kantari barriena baino. Izan be, gaur egun oso kantari barri gitxi ateraten dira, laguntzarik ez dagoalako. Horregaitik, erderaz hasten dira kantetan.

Azken diskoa 2007an atera zenuan. Zertan zabilz lanean gaur egun?

Bi proiektu dodaz buruan. Bata aurtontz aurkeztea espero dot: ni arratiarra naz, Gorbeiapen jaiotakoa. Hainbat herri-kanta dagoz bertan, eta horreetako 16-18 abestiz osatutako bilduma txikia atera gura dot Durangoko Azokarako. Orain arte folk ikutua emon izan jake herri-kantei, baina nik beste ikuspuntu batetik landuko dodaz, biziago, alaiago. Beste egitasmoari jagokonez, kanta barriez osatutako disko bat datorren urtean plazaratzea dot helburu.

TALLERES JUAN ANDRES
REPARACION, MANTENIMIENTO Y SERVICIOS
PERSONALIZADOS

INDUSTRIAL ZARAGOZA
C/ LARRABE 100

**LARRABE
LARRABE**

HARRABETZUKO ANDRA BATEK
C/ LA BARRA, 11 - 48940 LARRABE - 945 00 00 00

BOTIKA IKUSLAN

Uztarribidea, 1
48940 LARRABE
TEL: 94 502 00 10

HIRUTA KLUBIKA

Irteia Zubiak

Clubs de música de Euzkadi
Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi
Euzkadi, Euzkadi

El Club de Música de Euzkadi
C/ LA BARRA, 11 - 48940 LARRABE - 945 00 00 00

GUEDAN
servicios deportivos y
de ocio para todos los gustos
-SERVICIOS DE Ocio y Deporte-

ZANUJORDO LIZAL KONDUTSIA
Tel: 94 502 00 00 Fax: 94 502 00 00

**Garmendia
ardoak**

Plaza Jai, 7, 20
48940 LARRABE
Tel: 945 00 00 00

“Italian ez dago kafea hartzeko atsedenaldirik”

AIDE MURUAGA | Txorierriko Eskola Politeknikoko ikaslea

Aide Italian ibili zen joan den ikasturtean, hango enpresa batean praktikak egiten. Gaztearen esanetan, esperientzia ahaztezina izan zen, mundu guztiari aholkatuko liokeena.

t/a: Itxaso Marina

Zertan ibili zinen Prato herrian?

Enpresara ailegatu nintzenean, egiten zer nekien galdetu zidaten. Nik iaz Telekomunikazio eta Informatikoaren Sistemak prestakuntza-zikloa egin nuen eta ikasturtean zehar zer ikasi nuen azaldu nien. Enpresa baten webgunea egiten jarri ninduten eta denbora librean nuenean, plote-rrak eta sareak instalatzen laguntzen nuen.

Ezberdintasunik badago hango lan egiteko era eta gurearen artean?

Bai, bertan lehenengo minututik azken minutura arte aprobetxatzen dute. Ez dago kafea hartzeko atsedenaldirik.

Eta irakasteko eran?

Ere bai. Gauzak zure kabuz egin behar dituzu. Niri horrela esan zidaten: “Hau da egin behar duzuna eta hemen duzu azalpen-liburua, argibideak italieraz dituena. Animo!”. Zerbait ez nekienean galdetzen nuen eta eurek azaltzen zidaten, baina gero nik neure kabuz egin behar izaten nuen. Ikaste-prozesua erabat ezberdina da, eta, ondorioz, lanari beste arreta bat jartzen diozu. Hemen, ordea, ia dena ematen dizute eginda.

Hizkuntza ezagutu ez izanak oztopo izan zen, beharbada.

Hasieran arazoak nituen nire zalan-tzak azaltzeko, eta apur bat larritu nintzen. Baina astean behin italierazko ikastaro batera joaten nintzen eta han hitz teknikoak ere irakasten zizkidaten. Hizkuntza ulertzea lortu nuen azkenean.

Esperientzia baliagarria izan da zuretzat?

Oso. Gauza berri asko ikasi ditudala-

“Hango ikaste-prozesua erabat ezberdina denez lanari beste arreta bat jartzen diozu”

ko: ezagutzen ez nituen programak erabiltzen, ekipamenduak instalatzen, hizkuntza bera... Gainera, herria eta ingurua ezagutzeko aprobetxatu dut, eta nire kabuz bizi izaten eman ditut hiru hilabete. Oso esperientzia aberasgarria izan da, mundu guztiari gomendatzen diodana.

Non bizi zinen han?

Ikasle-egoitza batean, Euskal Herriko beste hiru mutilekin. Erosotasun guztiak genituen; wifi eta guzti. Egonaldiak eduki zuen “oztopo” bakarra nik lanaldi zaitua nuela izan zen; eta pisukideek, lanaldi jarraitua. Baina etxera bueltatzen nintzenean, buelta bat ematera ateratzen ginen.

Bueltatuko zinateke?

Bai, pentsatu barik. Italia betidanik ezagutu nahi izan dudana herrialdea da eta praktikei esker egin dut. Hala ere, ahalko banu, nahiago nuke beste herrialde batera joan; Eskoziara, esate baterako.


Orain marketin ikasten zabiltekin, ezta?

Ez, baina gustatzen zait. Gainera, etorkizunean irakaslea izatea gustatuko litzaidake eta Irakasle-eskolan sartzen ahaleginduko naiz. Irakasle batek behin esan zidan, lan egin baino, denetarik egin nahi nuela (kar, kar)... Marketin praktikak irailan izango dira eta horiek amaitzen ditudanean, lanen bat topatzen ahaleginduko naiz. Eta pozik banago, han geldituko naiz; osterantzean, unibertsitatera joango naiz.





Hemen heziketa lana da



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
 S.COOP.

Consejo de Educación Secundaria y Formación Profesional
 Landa Heziketa eta Bizirikako Inklusiozkoak Kudeatzen

Urdaxpe Iruia Kalea, 1
 48100 - DEFIGO

Tel.: 94 403 40 00
 Fax: 94 403 40 61

info@txorierri.net
 www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

FORO JARDUNALDIA



OSKUPEN TIKETAK

AGUNTZA, LANAREN ERANTZUNERAKO
 POLITEKNIKA

OSKUPEN TIKETAK
 (BARRUTIAK) KUPURUAK



Linea 0

lanketa-lankidetzaren sustatzea
 lanaren erantzun
 Eskola-erantzunaren kudeaketa

Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri

ATE IREKIEK JARDUNALDIA

Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinu fabrikazio mekanikoa (2.000 ord.)
- Diseinu fabrikazio mekanikoa (Goi maila) (2.000 ord.)
- Produktoreen programazioa (Goi maila) (2.000 ord.)

KIMIKA

- Injeneria-kimika (Goi maila) (1.400 ord.)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatizazio sistemak (Goi maila) (2.000 ord.)
- Telekomunikazio eta informatika sistemak (Goi maila) (2.000 ord.)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gaitzea (Goi maila) (1.400 ord.)

Batxilergo tekniko eta zientifikoa



Loiuko jaiek kinua egingo deutsee kirola eta kulturari



San Pedro eta Santa Luzia jaiek herritar guztiei zuzendutako ekitaldi sorta zabala ekarriko dabe ekainean. Datak eta lekua agendan apunteteko modukoak dira: ekainaren 23tik 30era bitartean, Loiu.

a: Loiuko Udala

Jaiak ekainaren 26an ofizialki hasiko badira be, hilaren 23an San Juan gaua ospatuko dabe udaletxe atzeko zelaian. Su inguruan batu eta txokolata eskaini-

ko jake bertara azaltzen diranei. Motorrak berotzeko modu ezin hobea izango da, ziur asko.

Esan danez, ekainaren 26an hasiorea emongo jake San Pedro eta Santa Luzia jaietara. Pregoia arratsaldeko 7:30ean iraku-

rriko dabe eta handik aurrera bost egun izango doguz kultura, kirola eta dibertimenturako. Aurreko urteetan legez, Irtxan taldeak Pala Txapelketea antolatu dau eta egun horretan finalurrekoak jokatuko dira. Ostean, berbenea egongo da Kresala taldeagaz.

Hurrengo eguna, zapatua, egun handia izango da loiuztarrentzat. "Loiuko jaiak" Paella Lehiaketea laugarren aldiz egingo da eta kalkuluen arabera, zelaian 78 koadrila inguru batuko dira. Koadrila gehienak herrikoak izan ohi dira eta, ondorioz, lehiaketan ia herritar guztiek parte hartuko dabela esan daiteke. Paellak eguerdiko ordu bietan aurkeztu beharko dira eta sariak arratsaldeko 7etan banatuko dabez. Umek be zer egin eta zertaz gozau eukiko dabe zapatuan: goizean, pintura lehiaketea eta herri jolasak; eta arratsaldean, apar-jaiak. Hor konpon taldeak kontzertua eskainiko dau gauean.

Patxiko, jaien protagonista

Domekan, ordu txikietara arte ibiltzen ez diranentzat –eta gau-txorientzat be, jakina- kalejireia egongo da goizeko 10etan. Gainera, Zabaloetxe KE taldeak "Zabaloetxe-Loiu" lasterketea antolatu dau lehenengo aldiz. Proba Bizkaiko

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



• **Handienak** gogoratu


• **Erabilera** gogoratu

• **Plataforma**

Arri Zubi agiri...



902 54 08 54 www.arlan.net



egutegian sartu dabe eta horrexegaitik, ekimenean korrikalari askok parte hartzea espero dabe. Arratsaldean, Pala Txapelketaren finalurrekoak eta finala jokatuko dira. The fizientes eta Luhartz taldeek amaiera emongo deusie egunari.

Astelehenean atsedendia hartu, eta indarrak martitzenari begira barrituko doguz. Ekainaren 29an, San Pedro izango da eta Pedro Guallarrek kontzertua eskainiko dau eleizan. Zabaloetxeko frontoian herriko nagusiei zuzendutako bazkaria egingo da, eta Taberna Ibiltariak ondoen egiten dakiena egingo dau tabernarik taberna: euskal kantak abestu eta herriko kaleak girotu. Gauean berbenea egongo da Egan taldeagaz.

"Aurton Zabaloetxe-Loiu lasterketea egingo da lehenengo aldiz"

Eguaztenean, Santa Luzia egunean, agur esan beharko deusagu Patxiko herriko maskota eta jaien protagonisteari. Baina aurretik hainbat ekimen izango dogu Loiuin. Horrela, Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejo musikariek organu eta klarinete kontzertua emongo dabe eleizan. Arratsaldean umeei zuzendutako ekintzaren bat antolatuko da eta gaudantzea be egongo da.

Jai-egitaraua

Ekainaren 23an, eguaztenean

21:00: San Juan sua eta txokolatea, udal-letxe atzeko zelaian.

Ekainaren 25ean, barikuan


19:00: Kalejireia.
19:30: Pregoia irakurtzea.
20:00: Sardina-jana.
20:00: Pala Txapelketaren lehenengo finalurrekoa, Irtxan taldearen eskutik.
21:00: Pala Txapelketaren bigarren finalurrekoa, Irtxan taldearen eskutik.
23:00: Berbenea, Kresala taldeagaz.
03:00: Diskotekea.

Ekainaren 26an, zapatuan

10:00: Kalejireia.
10:00: "Loiuko jaiak" VI. Paella Lehiaketatea.
11:00: Pintura Lehiaketatea, umeentzat.
12:00: Herri-jolasak, umeentzat.
14:00: Paellak aurkeztea.
16:00: Apar-jaia.
17:00: Paella Lehiaketaren sariak banatzea.
23:00: Kontzertua: Hor konpon.
23:00: Diskotekea.

Ekainaren 27an, domekan

10:00: Kalejireia.
11:00: Mezea.
11:00: "Zabaloetxe-Loiu" I. Lasterketea, Zabaloetxe KE taldeak antolatua.
11:30: Soka-tirea.
18:30: Dantzen agerraldia.



18:30: Pala Txapelketaren 3. eta 4. postuak, Irtxan taldearen eskutik.
19:30: Pala Txapelketaren finala, Irtxan taldearen eskutik.
20:30: Kontzertua: The fizientes.
21:30: Berbenea: Luhartz.

Ekainaren 29an, martitzenean (San Pedro)

11:00: Kalejireia.
12:30: Mezea eta kontzertua. Azken hau Pedro Guallarren eskutik.
12:30: Aurreksua, meza ostean.
14:30: Nagusientzako bazkaria, Zabaloetxeiko frontoian.
18:30: Betizu diskofestea.
20:00: Taberna Ibiltaria.
22:00: Berbenea: Egan.

Ekainaren 30ean, eguaztenean (Santa Luzia)

11:00: Kalejireia.
12:30: Mezea. Organu eta klarinete kontzertua, Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejoren eskutik.
12:30: Aurreksua, meza ostean.
18:00: Umeentzako ekintza.
20:00: Patxikori agur esatea.
20:30: Gau-dantzea.

Encomendado de la Real Audiencia
COMPANIA ALHAMA
Tamborileros Flamencos




Aurea Izasa Arriola: makintzan 3116 akabinan 11a
Majakipala: urtutaban 716 13a

Larreaite 2. eta 4. katuak (BARRIO) e-mail: alhama@juntadealaba.es - telefonoz: 94 477 61 31

Orkestraren gidariak orkestraren orkestraren gidariak
- Gidari orkestraren orkestraren gidariak / orkestraren gidariak
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
Orkestraren gidariak
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
Orkestraren gidariak
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
Orkestraren gidariak
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
Orkestraren gidariak
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
Orkestraren gidariak
- Orkestraren gidariak (GIDARI)
- Orkestraren gidariak (GIDARI)

Kiroletako zelaien mantenimendua: etorkizun handiko lanbidea



Itsasmendikoi (IMK) Derioko Nekazaritzako Eskolak ahalegin handia egin du azken urteotan, ikasleak hurrengo arloetan trebatzeko: lorategi eta berdeguneen atontze eta mantentze-lanetan, eta paisaiaren berriztapenean. Kirol-azpiegituratan gero eta berdegune eta lorategi gehiago daude eta, horren ondorioz, eskolaren ikasleek lana topatu dute hainbat esparrutan. Besteak beste, lorezain

kontratatu dituzte, edo lorategi eta kiroleko zelaien mantentze-lanez arduratzen diren lorezaintza-enpresetako arduradun.

Krisialdiak zalantzak ekarri ditu kiroleko zelaien etorkizunaren gainean; hala ere, adituek uste dute sektoreak hazten jarraituko duela, gizarteak halako zerbitzuekiko duen interesa gero eta handiago delako.

Gaur egun, IMK erreforma batean

Lana, aberastasuna eta ongizatea sortzen dituen sektorea sendotzea du helburu IMK-k

dago murgilduta eta EAEko prestakuntza-ziklo berrien diseinua hartu du arduratzen. Lorezaintza eta paisaia arloetako prestakuntza berria jasangarritasun-irizpideak kontuan hartuta egiten dabil.

Eskolaren ustez, plan berriak hobetu egingo du era askotako berdeguneen sorreran eta mantentze-lanetan dabilzan profesionalen prestakuntza eta trebakuntza. "Lana, aberastasuna eta ongizatea sortzen dituen sektore hau sendotzea lortuko dugu horrela. Eta bide batez, azken hamarkadetan paisaian eragin diren zauriak orbainduko dira, ingurumena hobetuz eta paisai naturalak zainduz".

IMK-k etorkizuneko lorazainen eta paisajisten prestakuntzaren aldeko apustua egiten du, eta horieek paisaia eta ingurumena zaintzen lagundu dute, datoen belaunaldien gozamenarako.

orain
zure txanda da

prestatu zaitez!

formazio zikloak
Irudi eta Gure materialak

Nekazaritza

- Nekazaritza: Udalaren Iniziatiba
- Lanpostuak
- Kudeaketa: Nekazaritza eta Abeltzaintza

Matrikula Zabalik
erregistroa 11tik ekainaren 11ra

IMK Derin
Berriztagia, 4
50100 Derio (Palencia)
Tel: 914 41 41 47
Fax: 914 41 41 47
ik@imk.es

imk
Instituto de Investigación y Formación Agraria y Pesquera

Lagatzu eguna Euskal jaia 2010

Ekainaren 26an, ZAPATUA

ZAMUDIO

- 10:00: **BATURADA** herriko antz eta garasentzat
KALEIRA, Bertoko eta Gaste Alai Taldeak aldeakaz
ZANPANTZARRAK
- 11:00: **HAMAHEGAMUA**, abokatuak
EUSKAL PRODUKTIEM xonka erakundeak Leizaola plazan
- 11:30: **ANIMAZIÓNEEN JOKUAK**, Kuku ludoarekin, abokatuak
TALO TAIITERRA, Altor Asarkekoarekin, ardiak
- 13:00: **KALE JIRA BIRA DANIZA POTBOA**
Bertoko eta bertokariek
Zanpantzarak
Iluru bat eta Gaste Alai
- 15:00: **HERRI BAZKARIA**, eskolatan.
15 euro nagusientzat; 10 euro umeentzat
Txapelak herriko denda eta tabernetan salgai 2 lera arte
- 17:00: **BETIKO KANTAK**, Taberna Bilbainoak, abokatuak
ILUR-FARUKA (janzgaririk, quartak...), eskolatan
- 19:00: **ERROMPIUA**, Infierno ludoarekin, abokatuak

**Euskeraz
bizi!!!**

LAGATZU
LAGATZU
LAGATZU

LAGATZU
LAGATZU
LAGATZU

Zamudio
LAGATZU

Zamudio
Lagatzu eta bertokariek
antzerkiak
lagatzen eta
bertokariek

Animatu eta parte hartu koadrilarekin
Jantzi zaituz antzerkiak euskeraz erregulak
ETA EUSKERAZ GOZATU!!!

“Errazagoa izan da Derion abestea”

t: Itxaso Marina

Hirugarren lotu zara. Zelan ikusi dozu zeure burua finalean?

Oso pozik nago egindako lanagaz. Seguru ibili naz, eta saioak ondo urten dauela esango neuke. Parte-hartze hutsak merezi izan dau, sendo ikusi dodalako neure burua. Sei urte pasau dira ezer egin barik, eta adorea emon deust ikustek oraindino ez dodazala galdu gaitasun batzuk. Ez dakit Bizkaiko Txapelketara joateko aukerarik eukiko dodan, baina oraingo honetan ondo ikusi dot neure burua.

Hori ekain aldean jakingo da. Txapelketara pasau ezker, ahalegin berezia egin beharko dozu, ezta?

Bai, baina udea dago tartean, eta badogu denporea ondo prestetako. Eskualdeetako txapelketak hurbilagoak dira. Saioak bazkari edo afari inguruan egiten dira eta han lagunak dozuz. Bizkaiko Txapelketea, oster, beste gauza bat da. Maila altuagoa da eta bertsolariek gehiago eskatzen deustie euren buruari, fuertea go ibili behar dalako. Txapelketa horrek badau beste ñabardura bat.

Uribe Butroeko finala Derion, etxean, egin da. Berezia izan da zuretzat?

Berezia baino gehiago, oso polita. Aretoa zalez beteta egon da, eta lagunak hurbildu dira bertaraino; baita Derioko euskaltzale eta bertsozaleak be. Erreza goa izan da bertan abestea. Saio polita egin dodala uste dot.

Txapela Mikel Goirienak eroan dau, merezita?

Oso merezita, Mikel gailendu zalako bai Derion, bai Larrabetzuko saioan.

Zure ibilipearen ganean arituko gara. Futbolariaren familiatik datorren bertsolaria zara, aurkakoa egin behar?

Ez, ez. Ni ere futbolearen saiatu nintzan garai baten, baina danok ez gara heltzen

ORTZI GARITANO | bertsolaria

Maiatzaren 22an, Uribe Butroeko Bertsolarien Txapelketaren finala izan zan Derioko Gurea Aretuan. Finalean, Ortzi Garitanok hartu eban parte. Sei urte emon doguz bertsolari derioztarra taula ganean ikusi barik, baina merezi izan dau itxarroteak. Gazteak txapela eroan ez arren, oso saio dotore eta polita egin ebalako.



“Oraindino gaitasun batzuk ez dodazalako galdu ikustek adorea emon deust”

gorenera; oso zaila da. Etxean bertsozale-
tasun handia egon da betidanik, eta niri
egokitu jatan bertsozaritzaz hartu eta au-
rrera egitea.

**Bertsolaritzagaz lehenengo harre-
mana etxean izan zenduan, beraz.**

Hamar urte nituala *Hitzetik hortzera*
saioa hasi zen telebistan, eta guk hori
ikusten genduan. Bertsolaritzarako grina
anaiek sorrarazo eusten, eta eskolan be
hasi nintzan mundu honetan murgiltzen.
Institutuan Lopategi izan genduan ber-
tsolaritzaz irakasle, eta bere eskutik harre-
manetan jarri ginan hainbat bertso esko-
lagaz.

**Zerk erakarri zinduzan bertsolari-
tzatik?**

Familia euskaltzalea da nirea, eta mu-
sikea pilo bat gustaten jat. Bertsolaritzak
badau hiru arlo honeen zati bat: ahoko
literaturea, musikea eta euskaltzaletasu-
na. Horreen arteko nahasketagaitik zaletu
nintzan.

**Zelango bertsolaria zarala esango
zeunke?**

Bertsolari arrunta naz. Agresibitate-
puntua dot batzuetan; eta beste batzue-
tan, bertsoa ahalik eta zuzenen egiten a-
halegintzen naz.

**Orain dala sei urte etena egin zen-
duan zure ibilbidean, zergaitik?**

Bizkaiko Bertsolarien Txapelketan 18
urte nituala hasi nintzan parte hartzen,
eta zirkuituan 24 urte bete arte egon nin-
tzan. Atsedena hartzea beharragaitik era-
bagi neban, eta erabat konbentziduta be
ez nengoalako. Baina Gabonetan bertso



saioa antolatu zan institutuan eta Etxa-
hun Lekuek deitu eustan bertan parte
hartzeko. Eta hemen nago osteraba.

Eta zelan sentiduten zara?

Askoz helduago; trankilago, badaki-
dalako ez dodala ezer galtzeko; eta oso
gogotsu.

**Gabonetan taulara berriro igon eta
Eskualdeetako Txapelketan parte har-**

*“Bertsolaritzan dagoan
literatura, musika eta
euskaltzaletasunaren
arteko nahasketak
erakarri ninduan”*

tzera animau zinan...

Hasieran ez neban txapelketan ibil-
tzeko asmorik, baina Etxahunegaz eta
Asier Legarretagaz berba egin neban eta
gure eskualdeko txapelketara aspaldiko
jentea joango zala esan eusten. Animau
nintzan. Ganera, halan, gazteago diranak
be babesten genduzan.

**Aurreko martxa berriro hartu be-
har, zelan prestau dozu zeure burua?**

Urtarriletik hona 6-8 lagun batu gara
astelehenero Larrabetzuko Bertso Esko-
lan. Eskolak 25 urte bete dauz aurton, eta
urte honeetan zehar bere beharra ezin-
bestekoa izan dala uste dot. Bestetik, ahal
dodan guztietan ahalegintzen naz erri-
mak lantzen eta neure burua prestaten.
Errepidean edozer gauza ikusi eta horri
be egiten deusat bertsoa... Burua buelta-
ka dabilkit egun osoan zehar eta inspirazi-

“Ez gurekien munduko aherik onakak bilibetik bain hurbil saltzen arihateak”

SUITE DELUX
HOTEL BARRIO DE LOS ANGELES

Coleccionista Teñosa La Barandilla 10 El Barrio de los Angeles Vizcaya	Coleccionista Artzaga Paradise Hotel, Barrio de los Angeles Vizcaya	Lofta Kultural-Denda 1. planta, Barrio de los Angeles Vizcaya
--	--	--

www.aikor.com



“Agresibitate-puntua dot batzuetan; eta beste batzuetan, bertsoa ahalik eta zuzenen egiten ahalegintzen naz”

“Burua bueltaka dabilkit egun osoan zehar eta inspirazino-iturria edonon topaten dot”

“Bertsoa bizi behar da eta nire bizimoduak ez deust denporarik ixten hori egiteko”

no-iturria edonon topaten dot.

Sei urte pasau dira txapelketa baten azkeneko aldiz aritu zinenetik. Asko aldatu dira gauzak?

Bai, gazteek beste ikuspuntu bat dabe abesteko orduan. Ez dakit nik orain beste nasaitasun bat dodan, baina gazteak gero eta ausartagoak dirala pentsaten dot. Gero eta argiago dabez gauzak eta gero eta segurtasun handiagoagaz kantatzen dabe. Eskertzekoa da, eurakaz taulara igoten zaranean, beste segurtasun bat emoten deusuelako; beste poztasun bat.

Oso arpegi gazteak ikusi dira bertsolarien artean.

Bai, Asierregaz batera gure eskualdeko txapelketan parte hartu dabenen zaharrenetariko bat nazala uste dot. Finalurrekoetan bizpahiru gazte ibili dira, oso maila altua dabena, baina punturik batu ezin izan dabena, oraindino gaztegiak diralako txapelketan parte hartzeko.

Lehen, bertsolariak zuzenean joaten zinienez Bizkaiko Txapelketa, eta orain, barriz, Eskualdeetako Txapelketan hautaketa-edo egiten da. Horrek badau abantailarik?

Bai, edozein bertsolarik bere maila jente-aurrean erakusteko aukerea daua-lako. Ni 1998. urtean, 18 urte gaz, zuzenean pasau nintzan Bizkaiko Txapelketa; inongo eskualdeetako saiorik egin barik. Eta nogaz indarrak neurtu behar zenduzan, gogorra izaten zan batzuetan.

Zelan ikusten dozu bertsolaritza mundua gaur egun?

Gero eta sendoagoa. Bertsolaritza oso ghetto txikietatik bultzatzen zen lehen. Baina orain, bertsolaritza gero eta barneratuago dago eskoletan eta institutuan, eta 10-12 urteko gaztetxo batek badaki

Teizaldg
Kulturaren Erakundeak

Lehendakaria: I. GIL
(21.000.000.000)

ALDURU: 01002007
TOL. 945.41.41.41

FLORRIETA
INSTAURACIONES

Plan: 1000.000.000.000.000

1000.000.000.000.000
1000.000.000.000.000
1000.000.000.000.000

Euzko Etxeak
ETXAK

1000.000.000.000.000
1000.000.000.000.000
1000.000.000.000.000

zer dan bertso bat. Nire garaian ez zan halar gertatzen. Beste alde batetik, Etxahun beste faktore bat izan daiteke. Hori urrunera ailegau da bertsolaritza munduan, eta erreferente bihurtu da Txorierrin.

Zeuk be erreferentetzat dozu?

Betidanik. Etxahun ni baino urte bat da zaharragoa, eta 14-15 urtegaz eskolarik eskola joaten hasi ginanean, ni bere buztarria nintzan. Hau da, beragaz askotan kantaten neban. baina berak aurrera egin eban eta nik, ez. Bai, erreferentetzat dot, eta gazte askok be erreferentetzat izatea espero dot.

Harrobi ona dogu gurean?

Bai, baina ez bakarrik bertsoan; musika eta literatura arloetan be gauza asko egiten dira. Bertsolaritza gero eta indar handiagoa dau. Txapelketa Nagusian zein Bizkaiko Txapelketan ikusten da zelango parte-hartzea dagoan jentearen aldetik. Bertsozale Alkarteak be gero eta gehiago dagoz. Bertsolaritza indarrean dago eta gazteek indarrean dagozan gauzak esker-tu egiten dabez; eta horreetan saiatu egiten dira.

Zaleen kopurua be hazi egin da denporak aurrera egin ahala.

Bertsolariak dauan aukerea zaleengandik dator; zalerik ez balego, ez litzateke saiorik antolatuko. Lehen bertso-afaria egiten zan, eta 10 lagun inguru batzen ginan han; orain, barriz, 50 lagundik gora bilduko dirala badakizu. Urte honeetan be euskera eta kultura taldeak eratu dira Txorierrin, eta euren egitarauen barruan antzerkia, musika... eta, zelan ez, bertso-

laritza sartu dabe. Horrek abesteko aukerea emoten deusku bertoko bertsolarietaz eze kanpokoei be bai.

BBK Txapelketan eta Bizkaiko Txapelketan hartu dozu parte zure ibilbidean zehar, baten bat gogoratzen dozu bereziki?

BBK Txapelketaren saio bat Derioko Institutuan egin genduan behin, eta ha oso zirrargarria izan zan alde guztietatik. Durangoko bertsolarien kontra ibili ginan eta horreek oso saio ona egin eben. Baina guk be bai eta finalerako txartela geuk lortu genduan akabuan. Eta Bizkaiko Txapelketari jagokonez, 2000. urtean Mallabiko frontoian egindako saioa. Frontoia jentetz ganezka egoan eta oso polita izan

zan... Egia esan, hori oso urte polita izan zan orokorrean. Bagenduan gure zirkuitutxua eta astebururo saioen bat egiten genduan.

Bertsolaritza bueltau zara, gelditzeko?

Hartu dodan konpromisoa ahalik eta urrunera eroatea dot helburu. Astelehentan nire jenteagaz Larrabetzuko Bertso Eskolan batzen jarraitzea, eta ahal dan saio guztietan parte hartzea. Baina txapelketak ez dodaz helburu nagusizat. Horretarako, plazan ibili behar da, saio asko egin, zure buruari gero eta gehiago eskatu... bertsoa bizi, azken batean. Eta nire gaur egungo bizimoduak ez deust denporarik ixten hori egiteko.



Herriko musikariak bultzatuko dituzte San Juan jaietan

Ekainaren 18tik 24ra bitartean, guztiontzako uneak egongo dira Sondikan: antzerkia, txapelketak, jolasak, dantzak eta gastronomia-ekitaldiak, batzuk aipatzearren.



a: Juanjo Ortiz

Sondikako jai-batzordea Maialenek, Eduk, Erkudenek, Unaiak, Naiak eta Beak osatzen dute. Lagun horiek ahalegin handia egin behar dute, herriko jaiak antolatuta ahal izateko. Izan ere, lanpetuta dabilta egun osoan zehar: ikasketak, lana, dantza taldea, hainbat proiektu, bizitza... Baina beti topatzen dute momenturen bat biltzeko eta jai-egitaraua osatzeko. "Herriko

taldeak ere, Hegalariak tartean, laguntzeko prest azaltzen dira urtero-urtero. Jaietan badaude mila gauza egiteko, eta estu eta larri ikusten gaituztenean, herritarrek ere eskaintzen digute laguntza. Eskertzekoa da".

Aurreko urteetako joerarekin jarraituz, jai-egitaraua, batez ere, umeei dago zuzenduta, orokorrean herritar guztien gustukoak izan daitezkeen ekitaldiak antolatuta dituzten arren. "Beti dago baten

bat *hobe izango zen...* esaten duena, baina guk asmo ona eduki dugu egitaraua osatzeko orduan. Ezinezkoa da mundu guztia pozik egotea, hala ere, saiatzen gara".

Egitarauari begiratu bat egin ostean, eginkizuna ederto bete dutela esan genezake. San Juan jaietako ekainaren 18an eman go diete hasiera. Txupinazoak bidea zabalduko die ekitaldiz betetako zazpi eguni. Eta bariku horretan, herriko musika taldeak izango dira protagonistak. Eszenatokiaren gainean Malos ratos, Habemus ratos eta Akerbeltz arituko dira. "Lehenengo biak bertokoak dira, eta bigarrenean Sondikarekin oso harreman estua duten taldekide bi daude. Neba-arrebak dira eta horietako bat herrira etorri da bizi izatera. Gainera, eguenean Xabi Aburruzaga Zamudioko trikitilariak eskai-

"Tiragoma Lehiaketa berreskuratu egin da aurten"

niko du kontzertua. Jaiak Sondika eta Txorierriko musikarientzako agertoki izatea nahi dugu, jotzeko aukera talde ezagunei ez ezik eurei ere emateko".

Sua

Zapatua pintatzen hasi eta musikarekin amaituko dute. Besteak beste, kalejira, gazta eta txakolinaren dastatzea, eta suziriak izango dituzte bitartean. "Gainera, tiragoma lehiaketa, lehenago antolatzen

Goiri'78 s.l.
Pedreira etxakola




Isaura Pol.
Centro Comercial
Bilbao 1

94 433 25 15
94 433 26 34


Santitas S.L.
Santitas s.l.

Antonia Añaberru
Burgosgoa
9000
949 872 798

Carretera de Leizor
48100 Leizor (Bizkaia)

94 973 14 01
94 973 14 01

AGROPECUARIO M. BARRIO



Elaboramos productos cárnicos y lácteos seleccionados.
Más información:

949 41 40 50
Luzarriz - Leizor

94 433 14 12



**SONDIKAKO JAIFTAN
DIBERTSIOA BAI!**

SUNDEKARI



IBIALA

**Etorri eta
parte hartu**

SONDIKAKO JAIFTAN JAIAK
2010eko maiatza
2010eko maiatzaren 10etik
14ra

**Clínica Sondika
Dental**

Tratamendu dentarrak
ortodontia
ortodontia
ortodontia

Enfatu, 7
barrutik gertuen dagoen lekua
Telefono: 94 41 80 30 40
Fax: 94 41 80 30 40
E-mail: sondika@sondika.com

Txorierrri - M
AIA JAIAK

94 41 80 30 40

TXORIERRRI TABERNA
KOKATZEKO BAI HAN
DIBERTSIOA BAI!
LAGUN ARLOAN

TXORIERRRI
HUTI HARRERIA

Gaitzori
Txorierrri - M
AIA JAIAK

auto-escuela SONDIKA

Gaitzoriaren edononko ikasleak
Inkaintza, lasterka, jaiak eta konzentrazioa

1998ko maiatzaren 10etik
Telefono: 94 41 80 30 40
2010eko maiatzaren 14ra

1998ko maiatzaren 10etik
Telefono: 94 41 80 30 40
2010eko maiatzaren 14ra

Yadra Floristas

1998ko maiatzaren 10etik
Telefono: 94 41 80 30 40

Sondika - M
AIA JAIAK
2010eko maiatzaren 10etik
14ra

24 orduko zerbitzua
Dr. Berta Barja
94 41 80 30 40

sondika
AKOZKOR-ONDO

Sondika - M
AIA JAIAK
2010eko maiatzaren 10etik
14ra

Publikoak
i. argia
ii. argia
iii. argia
iv. argia
v. argia
vi. argia
vii. argia
viii. argia
ix. argia
x. argia

TXORIERRRI
Txorierrri - M
AIA JAIAK
2010eko maiatzaren 10etik
14ra

1998ko maiatzaren 10etik
Telefono: 94 41 80 30 40
2010eko maiatzaren 14ra

zena, berreskuratu egin dugu.”

Domekan egongo diren ekitaldiak ere adin guztietako sondikoztarrentzat izango dira: jolas-parkea, motozerren erakustaldia, sukalkia, Mus Txapelketa, dantzen agerraldia eta erromeria. Jai-batzordeak atsedena egingo du astelehenean eta lekukoa Gorondagane gurasoen elkarrekin hartuko du. Elkarrekin horrek jolas-parkea eta diskofesta antolatu du arratsalderako. Umeek eurei zuzendutako ekitaldiak edukiko dituzte martitzenean ere bai.

San Juan suak gaua argituko du ekainaren 23an, eguaztenean. Udaletxe ondoko landan *Gora San Juan* himnoa kantatuko dute suaren inguruan: “*Gora beti eta beti. Ez da inon gizonik San Juan bezain santu, goitar eta handirik aurkitzen...*”. Ekitaldian herriko taldeek hartuko dute parte. Sua piztu baino lehen txitxi-burruntzia eskainiko da. Gaua Trikizio taldearen eskutik luzatuko dute.

Eta hurrengo egunean, eguenean, sondikoztarrek agur esango diete aurten gojaiei. Fanfarre batek herria girotuko du goizean, eta petardo-sortak hurrengo San Juan jaietarako gero eta gutxiago falta dela igarriko du.

*“Gora San Juan
himnoa entzungo
da suaren inguruan”*

Jai-egitaraua



Ekainaren 18an, barikuan

18:30: Bigantxak.
19:00-22:00: Fanfarrea.
20:00: Txupinazoa.
21:00: Tortilla Txapelketa.
21:30: Txahala dastatzea.
23:00: Kontzertuak: Malos ratos + Habemus ratos + Akerbeltz + DJ.

Ekainaren 19an, zapatuan

09:00-11:00: Pintura Lehiaketa.
12:00: Kalejira, Elaiak txistu taldearen eskutik.
12:00: Marsel magoa.
13:00: Gaztai eta txakolinaren dastatzea.
13:00: Apar-jaia.
18:00: Tiragoma Lehiaketa.
19:30: Euskal dantzen agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik

(gurasoek parte hartuko dabe).

23:00: Suziriak.

00:00: Kontzertuak: Vendeta + Jo ta hanka + DJ.

Ekainaren 20an, domekan

11:00-14:00: Haurrentzako jolas-parkea.
13:30: Motozerren erakustaldia.
14:30: Sukalkia.
16:00: Mus Txapelketa.
18:00: Euskal dantzen agerraldia, Gorantzaileak dantza taldeak antolatua.
20:00: Erromeria, Luhartz taldearekin.

Ekainaren 21ean, astelehenean

Gorondagane gurasoen elkarrekin antolatua.
16:00-19:00: Haurrentzako jolas-parkea.
18:00-20:00: Diskofesta.

Ekainaren 22an, martitzenean

18:00: Umeentzako herri-kirolak.
19:00: Txokolatadea.
19:30: Disko-txiki, pailazoaren ikuskizun musikala.

Ekainaren 23an, eguaztenean

18:00: Umeentzako diskofesta.
20:00: Herri-kirolak
21:00: Txitxi-burruntzia
23:00: San Juan Sua.
00:00: Trikizio taldea.

Ekainaren 24an, eguenean

12:00-15:00: Fanfarrea.
12:30: Meza eta aureskua.
13:30: Kopaua, jubilatuentzat.
18:00: Bigantxak.
20:00: Kontzertua: Xabi Aburruzaga.
21:00: Petardo-sorta.



Sondika zure bizilekua



Itxe etorka

Sondikan txoko lasai

eta isilean erretiratu

zara egunero. **Leku**

estrategiko batean

dago kokatuta, eta

berehala helduko

zara leku guzti horietara

Bilbo, Teknologia Parka,

merkataritza gunea

edo hondariza



Familia biko etxea

Urkiaga bizilekua

www.i-pat.com

91 679 03 81



Bizkai dantzan



a: Aikor!

Maiatzaren 16an, Bizkai osotik etorritako dantzariak hitzordua izan eben Sondikan, izan be bertako futbol-zelaia Bizkaiko Dantzarien Egunaren eszenatoki bihurtu zan egun batez. Eguraldiak zintzo jokatu eban eta euriak ez eban berdegu-nearen gaineko ikuskizuna ilundu. Milaka dantzari eta milaka ikusle. Jaialdia 30. aldiz antolatu da aurton; halanda be, ez dauz antxinako erakargarritasuna eta motibazioa galdu. Bizkaiko Dantzarien Eguna gure Lurralde Historikoko dantzarien jaialdi erraldoia dalako, guztiek gogo biziz itxaroten daben eguna. Txorierriko dantzariak eta ikusleak be bat egin eben ekitaldiagaz. Zelan ez bada!

AGINTU ERRETA
Ederribarri 16, 0
48100 Leizor
Tel. 94 419 00 41
info@agintu.com

LAGUNTZA ERRETA
Garaioa 10, 0
48100 Leizor
Tel. 94 419 00 41
info@laguntza.com

IRAKASLE ERRETA
Garaioa 10, 0
48100 Leizor
Tel. 94 419 00 41
info@irakasle.com

Laneriak **AGINTU ERRETA**
webgunean agertzen dira

www.aikor.com

TALDEA

GURENA

ASISTENTIA ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

AGINTU ERRETA
LAGUNTZA ERRETA
IRAKASLE ERRETA



destra
 Ministerio de Empleo y Seguridad Social
 Servicio de Empleo de Euzkadi
 SERVICIO DE EMPLEO DE EUSKADI
 SERBIZIOA
 Euzkadiko Lanpostuaren Zerbitzua
 EUSKADIKO LANPOSTUAREN ZERBITZUA


ARANTZA ARONDAIEN LAGA
 OINARRI OINARRI

Udako Udako
 Udako Udako

Kitchen kulkaldak
 Kulkaldak, kulkaldak, kulkaldak, kulkaldak

Literaturak hartuko ditu Larrabetzuko kaleak

Euskal literaturzaleen ezinbesteko hitzordua da. Aurten Literatura Euskarazko Literatura Azoka bigarren aldiz egingo dute Larrabetzun, ekainaren 4, 5 eta 6an. Bertan, argitaletxe, idazle eta zaleak bilduko dira, eta liburuak izango dituzte mintzagai. Gainera, kontzertu eta antzerki-saio batzuek ere borobilduko dute jaia.



t: Gaizka Eguskiza

Martxan dago Literatura, literaturzaleen gozamenerako. Bertan euskaraz idatzitako liburuen inguruan dauden nobedadeen berri izango dugu. Horretarako, hainbat argitaletzek erakuslehoak izango dituzte herriko plazan egongo den karpapean: Alberdania, Elkar, Erein, Igela, Maiatz, SUSA, Utriusque vasconiae eta Txalaparta. Gainera, idazle batzuk ere han egongo dira: Eider Rodríguez, Lander Garro, Xabier Mendiguren Elizegi, Miren Agur Meabe, Leire Bilbao edo Yolanda Arrieta, besteak beste. Literatura helduekin lotzen dugu, baina azokako arduradunek ez dituzte umeak baztertu nahi izan. Eta horregatik, eurei zuzendutako ekimenak ere burutuko dira Literaturian.

*Literaturian euskaraz
idatzitako liburuen
inguruan dauden
novedadeen berri
izango dugu*

Liburuak ez dira protagonista bakarrik izango Literaturian. Izan ere, zuzeneko kontzertuak eta antzerki-saioak ere ikusgai izango ditugu Larrabetzuko kaleetatik. Emanaldi guztiak internet bidez zabalduko dira www.larrabetzu.org/literatura helbidean. Aurreko hilabeteetan ekitaldi batzuk egin badira ere, azoka nagusiarri ekainaren 4an emango zaio hasiera. Harrera egin eta gero, Omar Nabarro, Edorta Jimenez eta Rafa Ruedaren txanda izango da. Gauari Joseba Tapiak jarriko dio erritmoa, disko berria aurkeztuko baitu plazan.

Hurrengo egunerako, Literatura eskolakoek "Irakurle taldeak Euskal Herrian" mahai-ingurua antolatu dute. Bertan hainbat herritako irakurle-taldeetako


ordezkariak hartuko dute parte. Goizean zenbait liburu ere aurkeztuko dira. Bazkaria egin ondoren, bertso trama literarioa egingo da Uxue Alberdi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Xabier Amurizaren eskutik. Arratsaldean antzerkia izango da nagusi. Dejabu taldeak *Azken portu* umeentzako saioa antzeztuko du 18:00etan, eta 20:00etan *Eskuen sustraiak* lana izango dugu ikusgai Hori Bain. Gauean, berriaz, zuzeneko musika entzuteko aukera egongo da Gose taldearen eskutik, esate baterako.

“Ekainaren 6rako, Euskarara itzulitako liburuak dira euskarazko literatura onena?” izenburuko mahai-ingurua antolatuko dute. Han Koldo Izagirre, Angel Erro eta Petra Elserren iritziak jasoko ditugu. Geroago, liburu batzuk aurkeztuko dira. Arratsaldean *Eta Karmele?* helduentzako antzerkia taularatuko dute Hori Bain. Beranduago, olerkiak errezitatuko dituzte Karmele Igartuak, Xabier Montoiak, Igor Estankonak eta Paddy Rekaldek.

Herri osoaren laguntza

Literaturia Larrabetzuko Literatura Eskolak sortutako ekimena da. Eskola duela sei urte jarri zuten martxan, eta ibilbide laburra izan bada ere, arrakasta handia lortu du Euskal Herri mailan. Arrakasta ikusita, eskolakoek herrira hurbildu nahi izan zuten literatura, eta horregatik azoka antolatzeari ekin zioten. Horretarako, Arrekikili euskara elkarte, Txinpasmendi guraso elkarte, Hori Bai gaztetxea eta Udalaren laguntza izan zuten.

Egitaraua



Ekainaren 4an

- 20:00: Harrera ekitaldia.
- 21:00: *Haragizkoa*. Omar Nabarro, Edorta Jimenez eta Rafa Rueda.
- 22:00 Joseba Tapiak disko berria aurkeztuko du plazan.

Ekainaren 5ean

- 10:00-11:30: Literatura eskola. Mahai-ingurua: “Irakurle taldeak Euskal Herrian”. Talde hauetako ordezkariak hartuko dute parte: Durango, Igorre, Iurretta, Markina-Xemein, Meatzaldea, Santutxu, Basauri, Amezketeta, Donostia, Legazpi, Larrabetzu eta Zumarraga.

- 12:00- 14:00: Liburuen aurkezpenak. Larrabetzuko umeen antzeztapena.
- 15:00: Bazkaria eta bazkalostean: Bertso trama literarioa. Josu Goikoetxea gidari: Uxue Alberdi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Xabier Amuriza.
- 18:00: Dejabu taldearen *Azken portu* umeentzako antzezlana, Angulerin.
- 20:00: *Eskuen sustraiak* ikuskizuna, Hori Bain.
- 22:30: Gose taldearen kontzertua, Hori Bain.
- Bi hitz & Beats, Hori Bain.

Ekainaren 6an

- 10:00-11:30: Mahai-ingurua: “Euskarara itzulitako liburuak dira euskarazko literatura onena?” Koldo Izagirre, Angel Erro eta Petra Elser. Moderatzailea: Miren Ibarluzea.
- 12:00-14:00: Liburuen aurkezpenak.
- 15:00: Bazkaria.
- 18:00: *Eta Karmele?* helduentzako antzezlana, Hori Bain.
- 19:30: Poesia errezitaldiak, Hori Bain: Karmele Igartua, Xabier Montoia, Igor Estankona eta Paddy Rekalde.

(*Umeentzako literaturatuak beste hainbat ekitaldi burutuko ditu.

(*Literatura euskaraz plazaratzen duten argitaletxeek euren erakusleihoak izango dituzte herriko plazan egongo den karpapean.

(*Emanaldiak internet bidez zabalduko dira.

**SARRIKOI A
OGITELGIA**

Produktuak
Aurkuntzak
Hobekuntza
Ikerketak

Maiztasunak, 100% naturalak
Tel: 94 455 81 44
978 010400

**Poluergia
Estetika**

94 455 81 44

Plaza Angeldakoa, gurea da
Larrabetzu

978 010400 94 455 81 44

ZURAS

Elektrika eta mugierak

Maiztasunak, 100% naturalak
Tel: 94 455 81 44

Uguiza

Maiztasunak, 100% naturalak
Tel: 94 455 81 44

Antzerkia guztiontzat

Lezamako antzerki taldea Laiak herriko emakumeen elkarteak bultzatuta sortu zen orain dela lau urte. Gaur egun arte elkartekideei zuzendutako jarduera izan da, baina aurtengo ikasturtetik aurrea edozein lezamarrak har dezake parte bertan, gizonezkoekin zein emakumezkoekin.

t: Itxaso Marina / a: Naroa Carcoba

Antzerki taldea udal tailer bihurtu da ikasturte honetan. Tailerrak sortutako gastuak Laiak Lezamako emakumeen elkarteak ordaindu ditu orain arte, baina momentu bat ailegatu da non ezin baitiete horiei aurre egin. Horregatik eskatu zioten Udalari tailer bezala eskaintzeko. "Alde batetik, formula berri horrek jarduerarekin jarraitzeko aukera ematen digu; eta bestetik, aberasgarriagoa da taldearentzat. Izan ere, bertan 18 urtetik gorako edozein herritarrak har dezake parte, gizonezkoekin zein emakumezkoekin. Ondorioz, ekarpen eta ikuspuntu gehiago izango ditugu".

Ikastaroan izena emateko Udalera jo behar dute interesatuek. Entseguak eguaztenetan, arratsaldeko 6etatik 8etara, egiten dituzte Uribarri Topalekuan, Begoña Ausinen zuzendaritzapean. Hala ere,

*"Nahiz eta aretoan
bizpahiru lagun
egon, atsegina da
antzezlana eskaintzea"*

*"Aukera ezin hobea
da lotsa kentzeko eta
oroimena lantzeko"*

laster kokapenez aldatu beharko dute, aretoa erromesentzako zabalduko baita. Erakusketa aretora joan beharko dira eta horren haritik, lokal finko bat izatea gustatuko litzaiekeela adierazi dute. Horrela, ez lukete leku batetik bestera ibili behar izan-

go. Nolanahi ere, lezamar guztiei luzatu nahi diete antzerki ikastaroan parte hartzeko gonbidapena. "Oso dibertigarria da eta gauza asko ikasi ditugu antzeppen munduari buruz. Aukera ezin hobea da lotsa kentzeko, eta oroimena lantzeko ere, testuak ikasi eta gogoratu behar direlako". Horrezaz gainera, tailerra antzerkia beste ikuspuntu batetik ulertzeko lagungarria dela esan dute. "Lehen, antzezlaren bat ikustera joaten ginenean, eszenaratze, dekoratuei eta abarreko gauzei erreparatzen genien, baina orain beste ñabardura batzuei ematen diegu garrantzia". Besteak beste, interpretazioa, teknika, gorputz-adierazpena, ahotsa eta dantza lantzen dituzte klaseetan.

Publikoaren berotasuna

Euren esanetan, interpretazio mundauek duen gauzarik zailena beste pertsona baten lekuan jarri behar izatea da, eta



horrek sentitzen duena besteei helaraztea. "Irakasleak pertsonaia gureganatu behar dugula esaten digu, eta, aldi berean, gure ukitua ere eman behar diogula; inprobisatu behar dugula. Oso zaila da, baina pixkanaka-pixkanaka lortzen gabiltza".

Zailtasunez aparte, antzezteak duen alderdirik onena publikoaren berotasuna da. Lau urtean sei antzezlari egin dituzte eta Lezamako erakusketa aretoraino hurbildu dituztenek gogoz txalotu dituzte ikuskizun guztiak. Esan daiteke antzezlari amateurren talde honek badakiela publikoa bereganatzen. "Aretoan jendetza batzen denean eta publikoa gozatzari ari dela ikusten duzunean, oso atsegina da. Hala ere, emanaldietara pertsona bat edo bi etorri gero, kasu horretan ere atsegina izango litzatekeela, zuk momentu horretan bizi duzuna beste pertsona batek ere bizi izatea oso gauza handia delako".

Laiak emakumeen elkarteak Emakumearen Nazioarteko Egunerako ekitaldi bereziren bat antolatzeko proposamena luzatu zien bazkideei 2006. urtean. Antzerki taldea proposamen horretatik sortu



zen. Urtean emanaldi bi eskaintzen dituzte: bata, Emakumearen Egunaren haritik; eta bestea, Gabonetan. Antzeztu dituzten lanen artean, Toti Martinez de Lezea Larrabetzuko idazlearen *Los graffittis de mamá* liburuaren moldaketa dago.

Umorez beti

Taldeak Juan Yuste aktorearen eskutik eman zituen lehenengo pausoak, eta gaur egun arte emakumearekin lotutako gaiak

eta arazoak jorratzen dituzte antzezlanean. "Umorez beti; behin izan ezik. Oso lan sakona eta serioa antzeztu genuen orduan, egoerak horrela eskatzen zuelako". Eskaini dituzten lan guztietatik *Mujeres atribuladas buscan obra con fines serios* gogoratzen dute bereziki. Bertan Inauterietako jai batera senar barik doazen emakume batzuen istorioa kontatzen dute. Antzerki taldea udal tailer bihurtu denez, gaiak ere aldatu beharko dutela jakin badakite, baina ez die axola; are gehiago, aberasgarriagoa izango dela pentsatzen dute.

Antzezlanak beste herri batzuetan ere eskaintzea gustatuko litzaeke, baina ez dute nahikoa baliabiderik erronka horri aurre egiteko, euren poltsikotik ordaindu behar dutelako antzezlantetik sortutako gastu guztiak: jantziak, dekoratuak, argiak... "Diru-laguntza txiki bat jasotzea ez legoke txarto". Hala ere, euren eginkizunarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute eta momentu honetan *Sí, sin mis hijas* antzezlana buru-belarri dabilta prestatzen. Hori ekainean eskainiko dute. Oihala lezamar guztientzat zabaldu da.

SONDERRA KULTUR ETXEA
LAGARDIA KANBIA, 1 (LAGARDIAKO BARRIOA)
Telefonoa: 98 493 40 19

11.00etan Aste, 19.00etan

"TNO, TNO, TNO, KANBIAKO KANBIAKOR"
Aste, Aste, Aste, Aste, Aste
Kantak, abestiak, dantzak
(19.00 / 19.00)

• 12.00ETAN J.A.
• 19.00ETAN J.C.

ANTZERKIA
11.00etan Aste, 19.00etan

"SHOW PARK"
Aste, Aste, Aste, Aste, Aste
Kantak, abestiak, dantzak
(19.00 / 19.00)

11.00etan Aste, 19.00etan
(Aste, Aste, Aste, Aste, Aste
Kantak, abestiak, dantzak
(19.00 / 19.00))

OSABO 8 C

HITZALDIA
11.00etan Aste, 19.00etan

FUNDACIÓN VIZCANTA PROPO

SONDERRA KULTUR ETXEA
LAGARDIA KANBIA, 1 (LAGARDIAKO BARRIOA)
Telefonoa: 98 493 40 19

REA OFE
LAGARDIA KANBIA, 1 (LAGARDIAKO BARRIOA)
Telefonoa: 98 493 40 19



“Afizionau mailan ibiltzen garonakaz ahaztu egiten dira”

Mikel Artetxe Txirrindulari Zaleak

Larrabetzuko Txirrindularitza Alkartea orain dala 13 urte eratu zan. Harrezkero, ahalegin handia egin dabe herritarren artean kirol hau bultzatzen. Eneko Oñarteetxebarria alkarteko presidentea da eta berbetan egon gara bera-gaz.

t: Itxaso Marina / a: MATZ

Zergaitik Mikel Artetxe izenagaz?

Bizikletaz ibiltea gogokoa eban herritar taldeak sortu eban alkartea. Mikel be tartean zan. Garai hatan, afizionau mailan hasi zan gailentzen, eta alkarreak bere izena eroatea pentsau eban.

Zenbat kide zarie?

Hasikeran, hogeit lau lagun inguruk osotu eban taldea, baina sei kide gara orain, eta ez dogu bazkiderik. Uste dan baino korapilatsuagoa da taldea aurrera eroatea, ekitaldiak antolatzea... Behar gogorra da, ahalegin handia eskatzen dauena, eta mundu guztia ez dago prest.

Bizikletea ahal daben guztietan hartzen dabenetakoak zarie?

Ez. Gutariko bi –Mikel eta Xabier bere anaia– txirrindulariak dira, baina besteok kirola ikusi gurago dabenetakoak gara... Halanda be, bizikletea hartu noizean behin bai egiten dogula!

Zein da zuen eginkizuna?

Txirrindularitzarako zaletasuna larrabetzuarren artean bultzatzea. Horretarako, “Jesus Loroño” Saria antolatzen dogu; San Bartolome igoera, herriko jaietan; eta Barrenetxera igoera, Emeterietan. Igaz, hamar urte bete ziran “Jesus Loroño” Saria antolatzen hasi zanetik, eta jaialdi polita egin genduan urteurrenaren haritik: las-

terketea, herri bazkaria eta kontzertua. Eta igaz be Bizkaiko Biraren antolaketan ibili ginan laguntzaile. Beste alde batetik, ahal dogun herriko ekitaldi guztietan hartzen dogu parte.

Zelango harrerea egiten deusie larrabetzuarrek alkarreari?

Oso ona. Laguntzeko prest azaltzen dira beti, musu-truk, eta gu oso pozik gara euren jarrereagaz. Lasterketak antolatze-ko orduan, borondatezko beharraz gainera dirulaguntzak be badira beharrezkoak. Eta horreek herriko dendari eta tabernarien ahaleginari esker lortzen doguz. Udalak be dirulaguntza bat emoten deusku eta enpresa batzuek dirua ipinten dabe lasterketarako. Baina esan behar da dirua ozta-ozta probak antolatze-ko ateraten dala...

Dirurik eza da, beraz, kirol honek dauen oztoporik handiena...

Bai. Foru Aldundiak, esate baterako, dirutza handia emoten deutso Euskaltel-Euskadi taldeari, baina ahaztu egiten da zaletu mailan ibiltzen garonakaz. Eta geu be zaindu beharko gindukiez, gu barik ez litzateke profesionalik egongo. “Jesus

Loroño" Saria antolatzen gabilzan hamai-ka urtean, Aldundiak behin baino ez deusku dirulaguntzarik emon; eta hori, nazinoarteko taldeak etorri ziralako. Oterantzean, gero eta traba gehiago ipinten ditue urterik urte. Pena da, dirurik ezagaitik lasterketa asko antolatzeari itxi jakolako.

Izan be, zaletasunik eza ezin da atxakiatzat erabili...

Txirrindularitza Euskal Herrian zale asko mugiten dauen kirola da, profesional zein afizionau mailan. Berton dogun zaletasuna beste leku batzuetan ez da egongo, ziur asko. Tourra horren adibidea da: euskaldunok Pirinioak hartzen doguz asteburuetan.

Seguros Bilbao txirrindularien taldea zuen alkarteari dago lotuta, zergaitik?

Xabier gure kidea izateaz ganera, talde horren zuzendari nagusia be bada. Txirrindulari taldeek alkarre bati lotuta egon behar dabe eta gurean sartzea adostu genduan. Talde ona da eta urtero profesioaletara igoten da hango korrikalari pare bat. Orain dala gitxi, adibidez, Espainiako Kopa irabazi dabe.

“Loroño” Saria irabazten dauenak profesioaletara igoten da”

“Jesus Loroño” Saria orain dala hamai-ka urte hasi zan egiten. Larrabetzun hiru txirrindulari profesional egon dira: Jesus Loroño, Benigno Aspuru eta Mikel Artetxe; eta Udalak horreetako baten omenez lasterketa bat egitea proponidu eban. “Jesus txirrindularirik garrantzitsuenetariko bat izan da eta bere oroimenez egitea erabagi genduan”.

Denporearen poderioz, lasterketea oso hitzordu garrantzitsua bihurtu da txirrindulari afizionauen egutegian. Batzaz beste, Euskal Herriatik etorritako hogeitai taldek hartzen dabe parte han; 200 txirrindulari inguru. Eta inoz kanpoko txirrindulariak be etorri dira Larrabetzuraino. Ganera, lasterketeak beste erakargarritasun bat dau: puntuagarria dala Sub23 sarirako. “Proba gogorra da, baina oihartzun handikoa, ha irabazten dauena profesioaletara igoten dan

ustea zabaldu dalako. Adibideak bada-goz: Alberto Contador, Beñat Intxausti, Igor Antón...”

Lasterketea abuztuaren 28an izango da aurton, Goikoelexaldeko jaien barruan. “Lehen txirrindularitzako egutegiaren bigarren hitzordua zan, baina abuztuaren amaieran egiteko eskatu dogu. Halan, txirrindulariek aurretik kilometro gehiago ditue eginda, sasoi hobean dabilz eta, ondorioz, ikusgarriagoa da lasterketea”. Dagoaneko, behar gogorrenagaz hasi dira taldekideak: instituzinoakaz hartu-emonetan ipintea, dirulaguntza eske ibiltea enpresarik enpresa... Baina ahalegina merezi dau, lasterketarena egun berezia dalako Larrabetzun. “Ehun herritar inguru ibiltan dira antolatze beharretan, eta lagun asko eta asko be batzen dira proba ikusten”.

“Berton txirrindularitzarako dogun zaletasuna beste leku batzuetan ez da egongo, ziur asko”

“Dirurik ezagaitik lasterketa asko antolatzeari itxi jako”



ADARRE KATEGIA
Wine and Food International Festival
13-14 JUNIA
Gasteiz - 48001 - Tel: 945 428 98 70

Abuztuaren Zerbait
Taldeak
Abuztuaren 28an
Abuztuaren 29an
Abuztuaren 30an
Tel: 945 428 98 70

aldeko ne
Barruak - 48001 Gasteiz
Tel: 945 428 98 70
Anuska Prieto Aguilera
Gasteizko
Tel: 945 428 98 70

Transhumantziaren lekukoa

Victor Ugalde gazteak aitaren eta osabaren ibilbideari jarraitu deitso eta berak be ahuntzak eroaten ditu Lezamatik Zornotzara bedar bila

t: Gaizka Eguskiza / a: Gabriel Etxebarria

Bazkarik onenen bila, abeltzainek abereak leku batetik bestera mugitzen dituenean, transhumantzia egiten dauela esaten da. Estatuan 1950etik aurrera itxi jakon transhumantzia egiteari. Horregaitik gaur egun ez da ohiko jardueria izaten. Halanda be, Bizkaian Gorbeia mendia inguruan egiten dabe transhumantzia artzain batzuek. Dimatik mendi puntara eroaten ditue abereak. Txorierrin hori egiten dabenak oso gitxi dira, eta Victor Ugalde gazte lezamarra da euretako bat.

Victor aitagaz eta osabagaz hasi zan artzain. "Etxean beti ikusi dodan gauzea da", esan deusku. Ez da bere behar bakarra, azken urte biotan kaleak garbitzen

ibili da goizean. Arrastian, barriz, baserriko beharrak egiten ditu. Transhumantzia etxean be ikusi dau Victorrek, eta aita eta osabagandik ikasi dau. Hasikera baten, kotxez egiten eben eta, horretarako, Land Rover markako ibilgailua eta atoia erabili zituen. Baina gero konturatu ziran erreza goa zala oinez egitea. "Abereak autoan

*"Behin lagun bat
etorri zan gugaz,
eta galdu egin zan.
Animaliek, barriz,
baekien nondik joan"*

sartzea eta autotik ateratzea korapilatsua da eta lan nekagarria ekarten dau horrek. Ganera, bigarren urtetik aurrera, ahuntzek badakie bidea, eta gauza izaten dira, eurek bakarrik egiteko. Behin lagun bat etorri zan gugaz, eta galdu egin zan. Animaliek, ostera, baekien nondik joan".

Animaliak leku batetik bestera eroateko zazpi ordu emoten dauz Victorrek, "bidea nasai egin ezkerro". Bidea oinez egiten dau, eta txakurra eta Gorka Magunazelaia izaten ditu alboan. Lezamako Basabale baserriaren ondoan hasten da taldearen ibilbidea. Geroago, Larrabetzuko Loroño auzoa, Larrabetzu, Zornotzako Boroa auzoa eta Zornotza herria zeharitzen ditue. Bidaia Belatxikieta mendian, Aramotz katean, amaitzen da.

Azken 40 urteotan Ugaldetarrek a-





huntzak eroan ditue bedar bila. Victorren ustez, ahuntzak zaintzeaz ganera, garrantzitsua da animaliak heztea. "Jenteak dino ahuntzak txarrak dirala, baina hezi egin behar dozuz. Eta hori lortzen badozu, ez dago arazorik". Dana dala, azkar ikasten dabe animaliek. "Eurek badakie udan non dagozan ondo; eta non, neguan. Apiriletik aurrera gure artean ez dago bedar nahikorik guztientzat, eta animaliek Belatxikietan izaten dabe lekua hartuta. Eta azarora ailegaten danean, menditik jasten dira Zornotzaraino, zure bila, barriro Lezamara joateko prest".

Egunero, Zornotzara

Ahuntzak Zornotzan dagozan bitartean, Lezamako artzain hau ia-ia egunero joaten da hara, animaliak zelan dagozan ikustera. Bestela, animaliak galtzeko edo behintzat sakabanatzeko arriskua dago. "Abereak batu eta zenbatu egiten doguz.

"Behar horretan ez dago oporrik, eta gazteek ez dabe egin gura. Horregaitik, baltz ikusten dot etorkizuna"

Batzuetan, galdu egiten doguz batzuk. Eta orduan falta diranak topaten saiatzen gara: batzuetan paraje dagoz eta topau egiten doguz; baina beste askotan zulo sakonetan-eta jausten dira eta ezin izaten dogu ezer egin. Batez be udagoienean galtzen doguz. Izan be, janari gitxi egoten da eta ahuntzak bedar bila dabilzala, zuloetan sartzen dira. Igaz, esate baterako, hamahiru ahuntz galdu genduzan.

Guztira, 140 ahuntz inguru eroaten di-


tu Victorrek. Ikuskizun ederra da lezamarra eta bere bidailagunak Zornotza edo Larrabetzuko kaleetatik ikustea. Jentea harrituta geratzen da, baina gehienak pozik eta laguntzeko prest be agertzen dira. "Udaltzainek beti laguntzen deuskue: trafikoa eten, bidea zabaldu.... Halanda be, arazoak euki doguz batzuetan. Adibidez, behin Larrabetzuko bat gure atzean parau eta txirrina jotzen hasi zan; 20 metrora beste bide bat hartu eban. Batzuek ez dabe pazientziarik".

Baserriko beharra batez be adintsuek egiten dabe gaur egun, gazteek ez dabelako halakorik gura izaten. Victorrek, barritz, 30 urte baino ez ditu. "Behar honetan ez dago ez zapaturik, ez domekarik, ez ezer. Ez dago oporrik, eta oraingo gazteek nahiago dabe lana egin eta, hori amaitu baizen laster, etxera joan. Etorkizuna baltz ikusten dot, gure atzetik inor ez dagoalako".

II PAPAINTZALA
 Buzkariak, kaskak, txapalak
 Buzkariak, kaskak, txapalak
 Buzkariak, kaskak, txapalak
 Buzkariak, kaskak, txapalak

LANTZARAT
 LANTZARAT
 LANTZARAT
 LANTZARAT
 LANTZARAT

GARAIOLTZA, S.A.
 PROMOTIBIAK E HARRUNTZAK
 Lurzorrotzak
 Merkataritza-irratzak
 Antzinak
 Informazioaren erabilgarritza
 Lurzorrotz handiak
 Urdulak eta erakargarritza
Tel.: 94 455 50 19
 GARAIOLTA ALDIA, 01010 BAHARI
 I. E. 48900 BILBAO



GPSa perretxikotan ere bada erabilgarria

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Badaude gauzak berehala ohiko bihurtzen direnak. Gure artean hain erraz integratzen dira, ezen betikotzat jotzen baitugu, nahiz eta horiek berri-berriak izan. Eta miresgarriak izatetik egunerokok izatera gu konturatu barik pasatzen dira.

Ez naiz eramangarriez ari; eramangarriok aspaldikoak dira herri-kulturaren. Mortadelo eta Filemonen edo Maxwell Smar-

ten "zapatfonoak" aspalditik ditugu ikusita, eta horrek asko lagundu du "benetako" zabalkuntzan. Ez, GPSaz ari naiz: Global Positioning Sistem edo Kokapen Sistema Globalari buruz.

Sistema hau AEBetako Defentsa Sailak sortu zuen 1973. urtean, eta hasiera batean erabilpen militarretara baino ez zen zuzendu. Sistema oso kalitate handiko seinaleetan oinarritzen zen, eta Clintonek seinaleek sortzen zuten zarata kentzea erabaki zuen 2000. urtean. Ondorioz,


seinaleen zehaztasuna 300 metrokoa izatetik 20 metrokoa izatera pasatu zen, gaur egun hain arruntak diren erabilpenak ahalbidetuz.

Oso sistema sinplea da. Lurraren inguruan 24-32 satelite daude bueltaka, eta satelite bakoitzak seinale bat bidaltzen du, momentu guztietan hura non dagoen eta zer ordu den adierazten duena. Autoetan-eta dugun aparatuak sateliteak agintutako seinalea jaso eta bere erlojuarekin alderatu egiten du. Hori egin ostean, badaki zenbat denbora pasatu den sateliteak seinalea agindu duenetik berak jaso duen arte. Denbora-tartea eta argiaren abiadura ezagutuz, satelite hori zein distantziatara dagoen badakigu. Eta beste satelite bi zein distantziatara dauden kalkulatu gero, badugu gure kokapena.

Baina hori oinarritzkoa baino ez da. Benetako kalkuluak egiteko, erlatibitatearen teoria ere hartu behar dugu kontuan, baita seinaleak hobetzeko hirietan jartzen diren igarle finkoak ere. Era berean, trenen erlojuak oso zehatzak izan behar dira, argiaren abiadura hain handia izanda, denbora-tartean akats txiki bat egoteak kokapenean akats handia egotea dakarrelako.

Aplikazioak mila dira: bidaiak, mendi ibilaldiak, lanerako... Eta edonoren esku daude; hori bai teknologia!

Eta punta-puntako erabilera ere badu: perretxikoak non irtetzen diren gordetzeko! Akabo gurasoengandik seme-alabengana pasatzen ziren leku sekretu horien transmisioa :-).



Adarra jotzeko makina

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Zipiri!
–Egun on Luki!
–Non jagok gure Txori ba?
–Umeak eskolako autobusera eroaten.
–Noz joan dok ba?
–Ez dok denpora handirik alde egin dauela. Itzuliko dok hurrean.
–Hortxe jatork!
–Egun on gizonok!
–Ondo etorri neskato! Zer hartuten dona?
–Nik kafea!
–Hik be bai Luki?
–Ez, niri akeita!
–Hara gaur be katua eta txakurra lez.
–Katua soinulari, saga dantzari.
–Bai Luki hi dantzari ona, baina beti be, asto joan eta gaur mando etorri!
–Esan leikio, Txori, zozoak beleari “ipurbeltz”.
–Bada esakera bat, Luki, dinona: Ez ipini lukia oilo jagoten!
–Baita beste bat be, Txori, zu lako begetarianoentzat: Ez ipini ahuntza aza zain!
–Horreek zozokeriak dozak Luki!
–Ba, hireak txakur-ametsak Txori.
–Lehen be esan deusuet txakurra eta katua dirudizuela.

–Egiten jok Zipiri, katuak miau eta txakurak lodiau.
–Ni, Txori, Lukia nazen ezkerro, ezin izan naiteke txoriburu.
–Ondarroan, Luki, pertsona artaburuari atunburu esaten jeutsiek.
–Txori, hasarreagaz oilo narrua parau jatana!
–Hobeto dok adarrak urtetea baino.
–Dana dala, Txori, gurago jonat zezenari adarretatik oratu eta gaurko sokati-ra hau amaitu.
–Arranopola Luki! krokodilo negarrak orain? Artean gangarra tente eduki dok ba!
–Ene badatxue! Txolea be atara eidak Zipiri, ea nasaitzen nazan.
–Alkoholagaz tronpea koiuko dok Luki!
–Bai, katu erdi koiuko dok Luki; tira, katu erdi edo luki erdi.
–Luki, Txori, zertarako zabiltzie egunero holan? Gure aittita zanak esaten eban: “Adarra jotzeko makina Astigarra-gan zegok”.
–Ai Zipiri! Etxean andrea nagusi; tabernan Txorik irabazi; holan luzaro ezin naiteke bizi!
–Agur!!!
–Adio!

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



T. 94 452 34 47
www.aikora.com




T. 94 454 8574
www.pasadepedernu.com

Pequeño aparcamiento GOLF GASTRONOMICO
Se dispone de un aparcamiento de 150 plazas, un restaurante y un green tee para campo de golf.
Precio: 45€

45€

www.aikora.com



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Gidabaimena
euskaraz non atera
daiteke Txorierrin**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
–Telefonoz: 94 452 34 47
–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:
M^a Carmen Elejaga
Irabazlea:
Pello Madariaga

Bakoren bazterra**Olibondoa***Iñaki Suárez, sumillerra*

Nahiko denbora daramagu, aikorlagunak, mahatsondoaren esentziak partekatzen. Eta uste dut momentua dela bera bezain mitikoa den zuhaitz bati omenaldia egiteko: olibondoa. Horren fruituak, olibak, plazer susmagaitzetaraino eramaten gaitu; zuzenean edo olibaren zuku oleikoaren bidez –hau da, oliba-olioaren bidez- gozatu ahal dugun plazeretaraino.

Olibondoa hosto iraunkorreko zuhaitza da, eta bere jatorria denboraren nebulosan galtzen den zuhaitz-espezia, oleaceen familiakoa. Mundu osoan zehar 2.000 barietate inguru daude, zuhaitz mota hau Mediterraneo Arroko herrietan arruntagoa bada ere. Landare hau, mutazio baten ondorioz, K.a. 3.000 urtean agertu omen zen. Antzina grekoek ere erabiltzen omen zuten, oliba-olioa ekoizteko.

Orokorrean ez da oso zuhaitz handia, ale batzuk 15 metro baino altuagoak izan badaitezke ere. Enbor okerttua du, begitsua eta bihurritua, denborak aurrera egin ahala zatitzen dena eta huts egon daitekeena. Hostoei dagokierik, zuhaitz berdea da,



hosto iraunkorrekoa; eta loreak hermafroditak dira, txikiak, berdera jotzen duen zuri kolorekoak. Lore guztiak ez dira fruitu bihurtzen, aurretiaz erortzen direlako. Barietateen arabera, zuhaitza apirilaren amaiera eta ekainaren erdialdearen bitartean loratzen da.

Esan dugun bezala, zuhaitz honen fruitua oliba da. Olibak drupa obalatuak dira, berde kolorekoak edo beltz-more kolorekoak. Drupa hezurri atxikitzen zaio, murturazioaren ondorioz, gizakion osasunerako ezaugarri handiak dituen landare-oliorik onena sortuz.

Azala berdea da hasieran, eta pixkanaka-pixkanaka marroira eta beltzera jotzen du, zimurtuz doan aldi berean. Ebanistek asko baloratzen dute bere egurrea.

Fruta-erbola da, beraz, lehorreko lurretan zein ureztatuetan landatzen dena eta 2.500 urte bizi ahal duena. Laburbilduz, etxeko erabilerako landaririk zaharrenetariko bat da, gizakiarengandik beti hurbil egon dena eta bere onurarako erabili izan duena.

Datozen hileetan apur bat gehiago jakingo dugu olibondoari buruz, bere inguruko kondaira, mito eta erabileren bidez. Eta, nola ez, bere zukuaren bidez, dastatzeko erakargarri egiten zaigu na. On egin.

Etxeko sukaldaritza**Makailaoa, sigi-saga erara***Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau laguntzat)**

- 4 makailao-zati, 200 gramokoak (Aldez aurretik beratzen izango doguz. Ur apur bat gordeko dogu)
- 3 patata handi (Tortillarako moduan txikituta)
- 3 kipula gorri
- 4 piper sikuen mamina
- Koilarakadatu bat piperrauts (Mina gustukoa bada, hori erabili)
- Zorrotada on bat oliba-orio
- Gatza

Prestateko errea:

Orioa lurrezko kazuela baten ipiniko dogu surtan. Bero dagoanean, patatak botako doguz, eta handik minutu pare batera, kipulea. Kazuela tapau eta su ez-tian itxiko dogu. Gatza botako dogu. Eginda dagoanean, piper-mamina, piperrautsa eta ur apur bat gehituko doguz. Eragingo dogu eta saltsea loditzen joango da. Beharrezkoa bada, gatz gehiago botako dogu. Makailaoa saltsa ganean ipini eta kazulea tapauko dogu. Su ez-tian bost minutu inguru izango dogu egozten. Makailao-zati bakotxa arrautza batez ateratu daiteke serbiduteko orduan.

Bar TRIPPY
ZURC OROK OROA
Ez da hain onakoa baino onakoa ez da hain onakoa baino onakoa ez da hain onakoa baino onakoa

MOUJ ANFANTE
Tximeleta
Kontakidetasun
Ez da hain onakoa baino onakoa ez da hain onakoa baino onakoa

wolcomsa
KAZUELA
Ez da hain onakoa baino onakoa ez da hain onakoa baino onakoa

Ercoreca
supermerkatuak
Flikalduvan aditua



Gomendioak

Amagoia Gezuraga

LITERATURA: NAGUSIAK

- Kontrarioa. L. Garro
- Ezer gabe hobe. I.Borda
- Gasolindegian. Y. Ugarte
- Egunkaria, amets baten egia. T. Ramirez de la Piscina

LITERATURA: HAUR ETA GAZTEAK

- Hiru triku, hiru truku. X. Mendiguren
- Medusaren burua. M. Aleixandre
- Aurpegiko ubeldurak. A. Kazabon

MUSIKA

- Har ezazu. A.Riouspeyrous
- Marraren beste aldean. Seiren
- Heldu eskutik. Etxe
- Egunarekin. Lauroba




Seiren taldea

Sudokua

		8	2	7	3				
6						2	8		
				8		6		7	
5				6					
1	9							3	
						3		9	1
9	2							1	6
	1			5				8	

■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■



Antzerkia eta filmak


Derio

- > *Buenos Aires 4Tango* ikuskizuna. Ekainaren 11n, 20.30ean, Gurea Aretoan.
- > II. Antzerki-topaketak. Ekainaren 12an eta 13an, 15:30ean, Gurea Aretoan. Tximintx euskara elkarteak antolatua.

Erakusketak

Sondika

- > "Anantapurrekin konprometituta", Vicente Ferrer Fundazioaren eskutik. Ekainaren 1etik 28ra, Erakusketa Aretoan.
- > Udal ikastaro eta tailerren erakusketa. Ekainaren 13an, 11:00etatik 14:00etara Goronda Beko kiroldegian.



Derio

- > Eskolaz kanpoko taldeen lanen erakusketa. Ekainaren 5ean, 16:30etik 18:30era, herri ikastetxean. Gurasoen elkarteak antolatua.

Zamudio

- > "Gure ibaiak" eta "Jon Arostegi, Gasherbrum lean". Ekainaren 15etik 30era arte, Zamudiotorren.

Ikastaroak eta tailerrak

Sondika

- > Bidaiak. Ekainaren 8tik 17ra arte.

Zamudio

- > "Planeta Salbatu". Ekainaren 19an, 11:00etan, liburutegian.

Larrabetzu

- > Autoestimua. Ekainaren 10ean, Anguleri kultura etxean.

Irteerak

Sondika

- > Baias ibaia (Sarria). Ekainaren 6an, 9:15ean, eskola ondoko aparkalekuan. Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua.

Zamudio

- > Urkiola. Ekainaren 13an, Adintsuen elkarteak antolatua.

Lezama

- > Izki. Ekainaren 6an, Gailur mendi taldeak antolatua.
- Balaitous. Ekainaren 26tik 27ra, Gailur > mendi taldeak antolatua.
- Urkiola. Ekainaren 27an, Zorribike taldeak antolatua.

Jaiak

Txorierri

- > San Juan sua. Ekainaren 23an.

Derio

- > Eskolako jaiak. Ekainaren 12an, 11:00etan, gurasoen elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > San Antonio. Ekainaren 13an, Goikoelexalden.

Kirola

Txorierri

- > Kirolari atepak zabalik ekimena. Ekainaren 6an.

Derio

- > Orientazio-lasterketa, bizikletaz. Ekainaren 12an, 10:00etan, frontoian. Kobi taldeak antolatua.
- > Frontenis Txapelketa. Ekainaren 13an, 10:00etan, Frontoian. Atxiki elkarteak antolatua.
- > Taekwondoaren erakustaldia. Ekainaren 27an, 11:00etan, kiroldegian. Doyan gimnasioak antolatua.

Zamudio

- > Arku jaurtiketa. Ekainaren 13an, 09:00etan, Errege bidean. Gezi-bide Derioko klubak antolatua.

Larrabetzu

- > Herriarteko Eskupilota Txapelketaren finalak. Ekainaren 27an, 11:30ean, frontoian.



Lehiaketak

Sondika

- > XIV. Kaleko pintura Lehiaketa. Ekainaren 19an.

Musika

Derio

- > Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Ekainaren 1ean, 19:00etan, Institutuko areto nagusian.
- > Ikasturte amaierako kontzertua. Ekainaren 8an, 19:30ean, Gurea Aretoan. Musika Eskolaren eskutik.

Bestelakoak

Txorierri

- > Uda programa: Izena ematea, ekainean.

IMPORTADORA P.T. ALMENDIA

MIGUEL

AMEN

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegiz handia egiten dugu. Berkeleto alorrean hegazkin-motor
magnetikoak eta altzariak eta CO₂ gatazka garatze dabilen teknologia
erabiltzen. Berkeleto alorrean gure garapimendu teknikoak erabiltzen ditugu
herrialdeko talde-lan baten bitartez. ITP Iningenieria, Injeneria, Injeneria, Injeneria
Integratua (jaki duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa) gara,
ingurumena eragarkortasunari erantzuten. Berkeleto alorrean gure garapimendu
teknikoak herrialdean erabiltzen ditugu.



agrojardín Astikene

Astikene Industrialgunea
Berruá, 25 - C. B. Iruña
tel: 94 454 08 57 - 948 68 51 19
Fax: 94 454 18 55
411160, DEBÍO - Huelva



Nekazaritza eta lorezaintzarako tresneria saldu eta konpontzen dugu



Ni zaguertzen etan!

Eraberrak denak
aiterik galduko!



Uelara mozteko traktorea erositzen gero,
opari hantarikoa bat izango duzu:
Roomba robot zurtoqailua ala
130 bareko ur garbigailua
Zeuk aukeratu!

Era motoseqa,
belarra mozteko makina
edo motozema erosten badituzu,
kimaketa-atazirik oparituko ditugu